

## Kultura

Francis Díaz, Doctor Deseok bihar, Plateruenean, aurkeztuko duten 'Igual y diferente, una mirada distinta' disko berriaz. > 11



## Heldu da benetako ikuskizunaren ordua



Emakumeen Birak zeresan handia eman du aurten, baina errepideaz kanpoko kontuengatik izan da. Eguaztenetik aurrera, munduko txirringularirik onenak bihurtuko dira protagonista. > 13

Maialen Zuazubiskar

## Euskara amu legez erabilia egindako diru iruzurra salatu dute, Durangon

Durangoko neska bati iruzurra egin zion martitzenean, kalean, mutil euskaldun batek. "Erdi negarrez ikusi nuen kalean, urduri. Euskaraz ba ote nekien galdetu zidan, eta Iruritakoa [Nafarroa] zela esan zidan". Etxera itzultzeko 23 euro eskatu zizkion neskari. Dirua eman eta gero, iruzur egin ziola konturatu zen neska. Bizkaiari, beste hainbat herritan ere kasu berdina salatu dute. > 6

*"Sirian bost urtean daude gerran, eta Europa ukitu dutenean ohartu gara"*

Itsaso Egia | CEAREko kidea > 10



**HEKi**  
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552  
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak



**anboto.org**  
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.  
Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.  
Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.  
Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU DOAN!**



### Durangaldea > 6

Gaixorik dauden presoen egoera plazaratuko du Sarek

### Durangaldea > 6

Zornotzatik droga banatzen zuen taldea desegin dute

### Durango > 2,

Frankismoaren aurka hiru salaketa prest daude, Durangon

### Iurreta > 7

Nagusiei laguntzeko Bidelagun programa abiatu dute



## **Herririk herri**

# Frankismoaren aurka, biktimen hiru salaketa prest daude Durangon

Frankismoaren aurkako kereilan Durangaldeak ere parte hartzea aztertuko dute gaurko bilkuran

**DURANGO** Markel Onaindia Argentinako justiziaren aurrean frankismoaren aurka ipinitako kereila aurkeztuko dute gaur, Durangon, eta kereilan Durangaldeak ere parte hartzeko aukera aztertuko dute. Eskualdeko biktimen salaketak landu eta Maria Servini epaile argentinarrari aurkeztea da asmoa, udalen inplikazioa lortuta. Durango 1936 elkarteak hiru salaketa prest ditu dagoeneko.


Gaurko aurkezpena 19:00etan hasiko da, Pinondo Etxean. Bertan, kereila sustatu duen plataformako hiru kidek berba egingo dute: Andoni Barreñak (Durango 1936 elkartearen kidea), Eduardo Gonzalezek (Sare antifaxista) eta Luis Fuentesek (CNT). Barreñak azaldu duenez,

kereilara batu ala ez erabaki, eta horretarako ze aukera eta bide dauden ikusiko dute. Bere ustez, “ekimenak aurrera egiteko,

“Ekimenak aurrera egiteko, beharrezkoa izango da herritarren eta udalen inplikazioa”

beharrezkoa izango da herritarren eta udalen inplikazioa”. Horregatik, herritar guztiei batzarrean parte hartzeko deia egin diete, ekimena Durangaldeko herrietan zabaldu dadin.

**Biktima gehiagoren bila** Barreñak kontatu du Durango-



Durango 1936 elkarteak faxismoaren biktimak omentzeko ekitaldia egiten du urtero.

ko hiru biktimaren kasuak ku-deatzen dabilzala. Hain zuzen ere, fusilatutako, desagertutako eta kartzelan hildako kasu bana dira. Horien senideek eginda-

ko pausoa izan da, eta paperak prest dituzte. Baina, horiez gainera, “badakigu gehiago ere prest daudela”, esan du Durango 1936 elkartearen kideak.

Bestalde, bonbardaketa ere auzitara eraman beharrezkoa dela dio Barreñak, baina, kasu horretan, era kolektiboan egin beharko litzatekeela.

# Bizkai osoko 210 gaztek parte hartuko dute Ibilaldiko erronkan

Erronkako gazteak Andra Marian elkartuko dira, domekan, 10:00etan

**DURANGO** Jone Guenetxea Maiatzaren 29an Ibaizabal eta Kurutzia ikastolek antolatuko duten Ibilaldiko motorrak berotzen hasiko dira, Durangon. Hurrengo hitzordua domekan izango da, Andra Marian. 13-16 urte bitarteko gazte osatutako taldeek Ibilaldiko erronkan parte hartuko dute. Bizkai-ko ikastoletako gazte osatuta, 10 pertsonako 21 taldek hartuko dute parte. Talde bakoitzean bi

nagusi egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. 10:00etan helduko diote erronkari. Gazteek egin beharko duten probaren zehaztapenak jasoko dituzte. Momentu horretan sukaldean prestatu beharko duten jakia zein izango den ezagutuko dute, eta baita horretarako izango duten materiala eta denbora ere. Eguerdian aurkeztuko dute egindakoa, eta epaimahai batek puntuatuko du prestatutakoa.

**Egun osoko egitaraua**  
Erronkaren inguruan giroa berotzeko beste hainbat ekintza antolatu dituzte domekarako. 12:00etatik aurrera, eguerdi osoan zehar, brasan egindako oilasko izter pintxoak egongo dira salgai. Era berean, Saltsaneko Iñaki Uribek paella erraldoi bat prestatuko du, eguerdian. Goizean eta eguerdian, musika alaituko dute Andra Mari inguruan



Bilbon iaz antolatu zuten erronkako argazkia.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko apirilaren 8a  
14. urtea - 627. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi eta Paul  
Bustindui Revuelta.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.


**Laguntzaileak:**



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





# Egurrezko egitura jarriko diote anfiteatroari


Herritarrek zein estalki mota jarri erabaki dute

**MALLABIA** Jone Guenetxea Mallabiko anfiteatroa estaltzeko proiektuaren inguruan, herritarrei iritzia eskatu die udalak. 75 herritarrek eman dute botoa, orain aste bi egindako ekimean. A eta B proposamenak zizuten aukeran. B proposamena izan zen garaile, botoen %64ekin. A aukera, berriz, %33k bozkatu zuen. %3k bietako bat ere ez zuen babestu. Guztira, 75 lagunek eman zuten iritzia. Aukera bietan, barruko espazioaren antolamendua berdina da. Ezberdintasun bakarra estalkia da. A aukerakoa kristalezkoa da, eta B aukerakoa egurrezkoa.

Barruan, umeentzat jolasak eta helduentzat gimnasio biosasungarrirako makinak ipiniko dituzte. Udal arduradunek aurreratu dutenez, eskailerak

Botoa eman dutenen %64k anfiteatroari egurrezko estalkia jarzea aukeratu dute

hormigoizkoak dira, eta tapatu egingo dira "hain arriskutsuak ez izateko". Lurra egurrezkoa izango da.



Anfiteatroaren estalkia zelan geldituko litzatekeen erakusten duen irudia.

# San Filippo gaixotasuna gaztetxoek begietatik

Marrazki erakusketak ikusgai daude ikastetxeetan

**ZORNOTZA** J.D. Abes Kimu eta Coral Zornotza abesbatzek San Filippo sindromea ezagutarazi, eta gaixotasun arraroen kontzientziazioan sakondu gura dute. Bide horretan, Zornotzako hainbat ikastetxeren laguntzagaz, kanpaina bat garatu dute ikasleen artean: gaztetxoek gaixotasun arraroen errealitateak ezagutu, eta horrek eragindako gogoeak marrazkietan islatu dituzte. Irudiekin osatutako erakusketa El Carmelo eta Larrea ikastetxeetan egon da ikusgai, asteon. Hilaren 8tik 14ra Andra Mari ikastolan egongo da; 15etik

21era Lauaxetan, eta 22tik 28ra Karmengo Ama ikastetxean.

**Kontzertu benefikoa** Zornotzako San Filippo elkarteari zein gaixotasun horri buruz Gurutzetan egiten ari diren ikerketari laguntzeko, kontzertu benefikoa bat antolatzen ere badabilta. Uztailearen 25ean izango da. Askotariko artistekin hartuemanetan dabilta dagoeneko. Bertaraten direnen artean, zozketak egingo dituzte: Athleticeko jokalariek sinatutako baloia, Xabi Etxeita jokalariren kamiseta... Fito Cabralesek ere zerbait emango die.

# Motxaila Band-en musika Txakolin Egunean, bihar

Lutaber elkarteko taberneak antolatu dute jaia

**ZORNOTZA** J.D. Zapatu honetan, Txakolin Egunean laugarren aldia antolatuko du Luis Urrengoetxea tabernarien elkarteak. Kale horretako 13 tabernetan garatuko dute ekimena: Tomasa, Antxeta, Pozus, Urtza, Hitzak, Larrea Bi, Belaxikieta, Auzoka, Leku Berri, Guria, Far-far, Vintage eta Harrison tabernetan. Edateko kopa erosten duenak -2 euro

balioko du-euro batean dastatu ahal izango du Gorka Izagirre txakolina egun osoan zehar.

Eguraldiak ahalbidetzen badu, eguerdian txosna bat jarriko dute Euskal Herria enparantzan jan-edanagaz (taloak, esaterako). Musika ere jarriko dute. Iluntzean ere ez da jairik faltako, eta Mendaroko Motxaila Band elektrotxaragaren musika berotuko du kaleko giroa.



PREST  
**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA



**Martxel Garai**  
myGADE, 2.maila

**GRADUKO ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**ARRASATE - APIRILAK 21**  
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

**ORONA IDEO - APIRILAK 30**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**

**BIDASOA - APIRILAK 16**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**OÑATI - APIRILAK 23**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**BILBAO - APIRILAK 30**  
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**ESKORITZA - APIRILAK 21**  
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

**ARETXABALETA - APIRILAK 21**  
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
Basque Culinary Center

**DONOSTIA - MAIATZAK 21**  
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

#erronkarakoprest



# Iazko aurrekontua luzatuta jardungo da, aurten, udala

Alkateak dekretua aurkeztu du, iazko aurrekontuaren luzapena egiteko



Diru-sarrerekin orekatzea lortzen ez duen hainbat gastu dauka udalak, hainbat lursailen jabetzari lotuta.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Urte honetarako udal aurrekontu proposamenik aurkeztu barik, alkatetza dekretu baten bitartez iazko aurrekontua luzatu dute Abadiñoko Udalean. Joan zen astean burutu zuten martxoko osoko bilkurako galdera eta eskarien atalean, EH Bilduk azalpenak eskatu zituelako mahaigaineratu zen gaia.

EH Bilduk kritikatu duenez, diru-sarrerak lortu eta aurrekontua orekatzeko modurik ez daukalako luzatu du gobernu taldeak aurrekontua. Mikel Urrutia koalizioaren bozerolearen berbetan, “aurrekontua ezin duzu emaitza negatiboagaz aurkeztu, eta gastuen pareko diru-sarrerak lortu ezin dituztenez, nahiago dute proposame-

nik ez aurkeztu”. Urrutiaren berbetan, “oso baldintzatuta dago udala, aurrekontua ezingo duelako Abadiñoren aurtengo beharrezanetara egokitu”.

Osoko bilkuran Jose Luis Navarro alkateak azaldu zuen bezala, aurten ordaindu beharreko hainbat gastu dauka udalak hitz emanda: Erralde hiltegiako 191.000 euroko kuota

ordaintzeko dauka; Zelaietako eskola ondoko lursail bati loturiko 290.000 euroko zorra ere badauka, Traña-Matienan eraikitzen dabiltzan etxebizitzetako batzuen jabea denez, proiektu horretako gastu batzuen kargu egin beharra du; eta 465.000 euro bueltatu behar dizkio Udalkutxa erakundeari.

EH Bilduren ustez, udal gobernuaren politiken ondorioa da udalaren egoera ekonomikoa: “Etxebizitza edo lursailen salmenta eta lizentzietatik espero zuten diru-sarrerarik ez dago, eta argi dago eredu hori agortuta dagoela, baina beraiek joko horretan jarraitzen dute”.

EH Bilduren ustez, udal gobernuaren politiken ondorioa da udalaren egoera ekonomikoa

Prebisio falta egozten dio EH Bilduk gobernu taldeari: “Udalak dauzkan zor guztietatik, Udalkutxarena bakarrik izan da aurreikusi ezinezkoa, gaintzeko guztiak aurreikusteko modukoak izan dira: zorrak gainera etorri zaizkie azken bi-hiru urteetan, eta orain, dirurik ez dagoela esaten dute”, kritikatu du Mikel Urrutiak.

## “Udalen finantzaketa” justuagoa aldarrikatu dute

**ABADIÑO** I.E.

Abadiñoko Independienteak alderdiak proposatuta, eta EH Bilduren babesagaz, atera zen aurrera, udalaren martxoko ohiko bilkuran, “Bizkaiko udal entzate finantzaketa justuago bat” eskatzen duen mozioa. EAJk kontra bozkatu zuen.

Mozioa onartuta, zerga-bilketaren aurreikuspenak egiteko darabiltzaten irizpideak berraztertu ditzatela eta “banaketa bidezkoagoa” bultzatu dezatela eskatu die Abadiñoko Udalak Eudeli, Aldundiari eta Batzar Nagusiei eta Lurralde Finantzaketa Kontseiluari.

Jose Luis Navarro alkateak azaldu zuen “aurreikusitakoa baino %9,3 gutxiago” bildu zuela Ogasunak, iaz, eta udalerrientzat karga handia dela Udalkutxari bueltatu beharreko diru-kopurua. Aurten, 468.000 euro bueltatu behar dizkio udalak Udalkutxari.

Navarro alkateak esan zuen, udalerrientzat karga handia dela Udalkutxari bueltatu beharreko dirua

## 400 ume dantzari arituko dira Dantzari Egunean

Eskualdeko 12 dantza talde gonbidatu dituzte

**ABADIÑO** I.E.

Traña-Matienan XVI. Umeen Dantzari Eguna egingo dute, domekan. Durangaldeko hamabi taldetako 4 eta 12 urte arteko ume dantzariak parte hartuko dute ekitaldi horretan. Otxandio Urduri; Berrizko San Lorentzo eta Iremitze; Ermuako Txindurri; Durangoko Txoritxu Alai, Tronperri eta Kriskitin; Atxondoko Andasto, Eloorrioko Betsaide; eta Abadiñoko

Talde Batuak eta Iluntze. Ia 400 dantzari, guztira.

Urteroko ohiturari eutsiz, goizeko kalejira eta Traña-Matienako plazetako dantza erakustaldien ostean, auzoko txoko, jatetxe, eta etxeetan bazkalduko dute ume dantzariak.

Bazkalostean, Alardea eskainiko dute hamabi dantza taldeetako kideek —ateri bada kiosko plazan, eta euria bada frontoian.

## Dendak Bai Merkataritzagune berrien kontra

Prentsa oharra zabaldu du, asteon, elkarteak

**ABADIÑO** I.E.

Prentsa oharra zabaldu du Dendak Bai Durangaldeko merkatarien elkarteak, “Abadiñon bi supermerkatu berri zabaltzearen kontrako jarrera” adieraziz. Orain aste bi jakinarazi zuen Abadiñoko udaleko gobernu taldeak Mercadonak eta Lidlek merkataritza-gune berriak zabalduko dituztela Muruetan.

Saltoki handi horien irekieraren kontra, hainbat argumen-

tu ematen ditu merkatarien elkarteak, asteon komunikabideetara bidali duen idatzian: “80 lanpostu sortuko direla diote, baina ez dute kontuan hartzen zein baldintzatan izango diren, ezta saltoki horien irekierak zenbat lanposturen zeharkako galera ekarriko duen ere”.

Durangaldeko merkataritza txikiaren alde lanean jarraitze-ko asmoa duela dio Dendak Bai merkatarien elkarteak.

Bizkaian “lehen eta bigarren mailako biztanleak” daudela salatzen du idatziak, eta gaur egun, hiriburuak eta herriek zergen birbanaketatik jasotzen dutenaren artean horren alde handia egotea ez dela onargarria adierazten du.

Mozioa onartzearen alde bozkatu, eta fiskalitatea bere osotasunean berraztertu beharra dagoela ere aldarrikatu zuen EH Bilduk.

Eneko Etxebarria jeltzaleak gezurtatu egin zuen “Bizkaian lehen eta bigarren mailako biztanleak” daudela, eta “mozioaren muiinagaz ados egon arren, formak ez zaizkigulako gustatu” bozkatu zuten kontra.

R.P.S. 214/06 A. Urreta

**Abinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak

inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



# GREMIOEN GIDA



## ARKITEKTURA

**ARKI  
TEK  
SAN**

OBREN ZUZENDARITZA  
PROIEKTUAK / BIRGAITZEAK  
ERREFORMA ETA GARAPENERAKO  
NEGOZIO LOKALEN PROIEKTUAK  
ERAKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK  
NEURKETAK, PLANOAK  
ETA AURREKONTUAK EGITEA  
ERAGINKORTASUN  
ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK

WWW.ARKITEKSAN.COM  
622 745 419  
HEZTO URKIZU 42. ELORRIO  
INFO@ARKITEKSAN.COM



## GARBIKETA

**AZKARGI  
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goleta, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215



## LOREZAINITZA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23-1 esk DURANGO  
PATXI: 696 463 085



## ITURGINTZA

**Mallabiena** 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

  
**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO  
188 PK.



## DEKORAZIOA

**JAIO**barnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,  
armairu aurrekaldeen eta  
era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesional  
onenak zure  
zerbitzura!**



# 70 preso eta iheslari ohik mobilizaziorako deia egin dute

EPPKren ildo berria babesteko manifestazioa deitu dute, hilaren 17rako



Manifestazioari atxikimendua eman dioten 70 lagunetako asko, taldeko argazkian, lurretan.

## **DURANGALDEA** M.O.

Apirilaren 17rako, manifestazioa deitu dute preso eta iheslari izandako 1.000 lagunek baino gehiagok. Horietatik 70 Durangaldekoak dira. Argazki esanguratsua egin dute mobilizazioa babesteko, eta presoek etxera etxera euren ekarpena egiteko asmoz daudela diote. Manifestazioa Bilbon izango da, Kasillan hasita, 12:00etan. *Amnistiaren norabidean, euskal preso eta iheslariak etxera* da lema.

EPPK-k (Euskal Preso Politikoen Kolektiboak), etxeratzean pausoak emateko, egungo legediak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzea adostu zuen, eta

ildo berri hori babesteko deitu dute manifestazioa preso eta iheslari ohiek. Presoei ere zuzendu zaizkie: “Zuek barrutik egingo duzuen bide hori berori, guk kalean lagunduz, askatasunaren aldeko borroka kanpoan zein barruan partekatuz”. Ezker Abertzalearen ardatzei lotuta, “prozesu independentista baten borrokaren baitan” ikusten dute presoek askapena.

## **Presoen pausoak**

Euskal Herriko Foro Sozialaren gomendioei jarraituta, adierazpen bat kaleratu zuen presoek kolektiboak, gatazkaren konponbideari begira. Bertan,

legearen aplikazioa banaka eta era mailakatuan garatzeko aukera zabaldu zuten, Estatuak eskatzen dieten damuan eta beste kideen salaketan marra gorriak ipinita. Hori bai, gatazkaren ondorioen eta euren erantzukizun propioaren inguruan berba egiteko prest agertu ziren. Gatazka politikoak konponbide politikoa behar duela azaldu zuten.

## **Frailerren egoera gogoan**

17an, sakabanaketa amaitzea eskatuko dute, lehen pauso lez. 70 urtetik gorakoak eta gaixoak askatzeko “urgentzia” ikusten dute, eta Gorka Fraile durangarra izan dute gogoan, bereziki.

## Diru iruzurra egin dute kalean, euskara amu moduan erabilia

### **DURANGO** M.O.

Durango neska bati iruzurra egin zion martitzenean, kalean, mutil euskaldun batek. “Erdi negarrez ikusi nuen, urduri. Euskaraz ba ote nekien galdetu zidan, eta Iruritakoa (Nafarroa) zela esan zidan”, esan du neskek. Bere ustez, “euskaragaz konfiantza” eman gura zion, engainu egiteko. *Japoniarren iruzurra* ere deitu izan zaio hizkuntzagaz enpatia sortzeko teknikari. Praktiketant dabilela esan zion, eta dirua behar zuela etxera bueltatzeko. 23 euro eskatu, eta biharamunean bueltatuko zizkiola esan zion, hitzordu bat ipinita. “20 euro eman nizkion, aldean neukana”.

“Euskaraz ba ote nekien galdetu zidan, eta Iruritakoa (Nafarroa) zela esan zidan”

Sinestu arren, gero txarto pentsatzen hasi zen. Lagunekin komentatu zuen, eta Interneten begiratuta, konturatu ziren kasu berdina gertatu dela, azken egunetan, Bizkaian. Zornotzan, Leioan eta beste zenbait lekutan jazo dela esan dute sare sozialetako erabiltzaileek.

## Zornotzatik droga banatzen zuen talde bat desegin dute

### **DURANGALDEA** J.D.

Guardia Zibilak hiru lagun atxilotu ditu, eta elkarte kriminal bateko kide izatea egozten diete. Horietako bat Durangon bizi zen. Marokotik ekarritako haxixa Zornotzako Inbisa industrialdeko biltegi batean gordetzen zuten, ondoren Espainia iparraldean banatzeko.

Malagan batzartzen ziren, eta han ixten zituzten tratuak. Ondoren, planeatzeko hegazkin batean ekartzen zuten droga, Marokotik Malagara. Mala-

Hiru atxilotuetako bat Durangon bizi zen; Zornotzako biltegia Inbisa industrialdean zuten

gatik Zornotzara arteko bidea kamioiz egiten zuten. Horietako bidaia batean, kamioari jarraitu, eta Burgos inguruan geldiarazi zuen Guardia Zibilak. Kamioia arakatu, eta 50 fardo haxix aurkitu zituzten; guztira, 1.629 kilo. 10 milioi euroko balioa zuen. Segidan, Zornotzan eta Logroñon ere miaketak egin zituzten, eta material informatikoa, askotariko dokumentazioa eta ibilgailu batzuk konfiskatu zituzten, besteak beste.

# Gaixorik dauden presoek egoera plazaratuko du Sarek, Durangon

Mahai-ingurua egingo dute Berriozabal eta Lopez de Luzuriagarekin

## **DURANGALDEA** M.O.

Sare mugimenduen *Hartu Trena* dinamika Durangora heldu da, eta, gaixorik dauden presoek egoera plazaratuko

dute. Martitzenean, 19:00etan, mahai-ingurua egingo dute Pinondon, Inma Berriozabal eta Gotzone Lopez de Luzuriaga preso gaixo ohiek, besteak beste.

23rako ekimen ibiltaria deitu dute, 18:00etan anbulatoriotik hasita. 20:00etan izango da ekitaldi nagusia, Andra Marian, Gorka Fraile gogoan hartuta.



Eguaztenean dinamikaren aurkezpena egin zuten, Plateruenean.

## Euskaraz Bizi egunerako deia egin du EHEK

### **DURANGALDEA** M.O.

“Euskaraz bizitzearen aldeko hautuari behar duen bultzada emateko” asmoz, Euskaraz Bizi eguna antolatuko du EHEK, apirilaren 16rako, Baionan. Porrotx pailazoaren ikuskizuna, umeen jolasak, artisau eta eragileen azoka, herri bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte, besteak beste. Durangotik autobusa jarriko dute, eta Plateruenean edo Intxaurren eman ahal da izena, hilaren 13a baino lehen. 20 euro balio du txartelak, eta autobusaz gainera, bazkaria ordaintzeko ere erabiliko da.

Baionarako autobusa 09:30ean irtengo da, Durango Madalenatik, eta goizaldean bueltatuko da, 02:00etan, Lapurdiko hiriburutik Durangorantz.

## ELAk deituta, greba egin dute zahar-egoitzetan

### **DURANGALDEA** M.O.

ELA sindikatuak deituta, hiru eguneko greba egin dute Bizkaiko zahar-egoitzetako beharginek, eta protesta Durangaldera ere heldu da. Hain zuzen ere, martxoaren 17an, atzo eta gaur ez dira beharrera joan. Atzo

Hitzarmenerako egindako proposamena “guztiz atzerakoia” dela esan du ELAk

kontzentrazioak egin zituzten, gainera.

Sektorean “prekarietatea nagusi” dela, eta patronalak hitzarmenerako egindako proposamena “guztiz atzerakoia” dela esan du ELAk.



# Nagusiei laguntza emateko programa jarri dute martxan

Bidelagun boluntariotza programa abiatu dute Gurutze Gorriagaz batera



Gurutze Gorriko eta Iurretako Udaleko ordezkariak egin dute agerraldia, asteon, Ibarretxe kultur etxean.

**IURRETA** Aitziber Basauri. Iurretako Udalak, Gurutze Gorriagaz elkarlanean, mendekotasun edota ezgaitasun egoeran dauden pertsona nagusiei zuzendutako Nagusien Bidelagun boluntariotza programa jarri du martxan. 70 urtetik gorako 650 pertsona daude Iurretan; eroldaren %17,4 dira. Horrez gainera, aurten, 46 lagunek bete ditzute 80 urte.

60 urtetik gorako pertsonentzako gertutasun eta laguntza programan, 18 urtetik gorako edonork parte hartu dezake bo-

luntario moduan. Hiru laguntza mota eskainiko dira: astean ordu bi eskatzen ditu laguntza erregularrak (etxeko konpainia eta kalean ibiltzea); laguntza puntuala ere eskainiko da medikuenera joateko edo bestelako gestioak egiteko; azkenik, informazio eta telefono bidezko jarraipena egiteko aukera legoke.

Pertsona hauei ohiko ingurunean jarraitzeko aukera eskaini gura zaie, "bizi kalitatea hobetzeko eta sare soziala zabaltzeko". Epemugarik ez dago erabiltzaile zein boluntario

izateko, eta egitasmoak harrera ona izatea espero dute.

Zahartze "osasungarri eta aktiboa" sustatzen jarraitzeko ipini du martxan egitasmoa udalak, eta erabiltzaile posibleak ezagutzeko osasun zentroagaz, Durangaldeko Aمان-komunazgoagaz eta Goiuriako Ama nagusien elkarteagaz jarri dira harremanetan. 2014an, ke-detekttagailuak ipini zituzten 80 urtetik gorakoen etxeetan, etxeko suteen gaineko informazioa emateagaz batera. "Egoera aztertze balio izan zigun".

## 16 komertzio batu dira herriko merkataritza sustatzeko kanpainara

Udalak eta Dendak Bai-k sustatuta, hilerro hainbat opari zozkatuko dituzte

**IURRETA** A.B. Herriko dendetan erosiz zuk irabazten duzu, Iurretak irabazten du lelopean, herriko merkataritza sustatzeko kanpaina abiatu dute; 16 komertzioekin egin dute bat. "Herriko dendek eta merkataritzaren balioa nabarmendu"

gura dute, eta bertan erosteak dituen abantailak erakutsi, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan.

Abendura artean, hileko azken barikuan —abuztuan ezik—, 20-40 opari egingo dituzte zotz, atxikitako dendetako

bezeroen artean: eguzkitakoak, jolasteko palak, autoetarako USB kargagailuak... Atzeko aldean izen-abizenak eta telefonoa idatzita, erosketa-txartela sartu behar da dendan dagoen kutxatxoan. Udalak Dendak Bai elkarteagaz abiatu du ekimena.

## Nagusientzako adimena ontzeko ikastaroa

**BERRIZ** M.Z. Berrizko udalak bi hilabete iraungo duen ikastaroa antolatatu du pertsona nagusientzat. Udalak antolatutako tailer honek nagusien memoria estimulatzea du helburu. Hau da,

Ikastaroak bariku arratsaldetan emango dituzte, Berrizko Adinekoen Egoitzan

hainbat ariketa eginez, nagusiek beraien adimena hobetzea lortuko dute.

Ikastaroa apirilaren 15etik ekainaren 3ra arte emango dute, barikuro. Adimena estimulatzeako tailerra Berrizko Adinekoen Egoitzan izango da, arratsaldean. 17:00etan hasi eta 18:30ean amaituko da.

Udalak antolatutako ikastaro honetan, apirilaren 12ra arte, datorren martitzenera arte egongo da aukera izena emateko, Berrizko Adinekoen Egoitzan.

## Zabaldu dute udaleku irekietako izen-ematea

**BERRIZ** M.Z. Uztaileko udaleku irekiak antolatutako Berrizen. Beste urtebetez, udaleku hauek euskara bultzatzea eta herriko gaztetxoek aisialdian ondo pasatzea izango dute helburu.

Adinaren arabera hiru taldeetan banatuko dituzte udalekueetan izena ematen duten gazteak. Haur hezkuntzakoek, hau da, 2011 eta 2012 urteetan jaiotako umeek eta lehen hezkuntzako umeek uztailearen 6tik 28ra izango dituzte udalekuak. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako gazteek, berriz, uztailearen 11tik 22ra.

Udaleku hauetan, apirilaren 4tik 22ra eman daiteke izena, eta, nahiz eta lehentasuna herriarrek izan, herriar eroldatu gabeek ere eman ahalko dute izena. Herriko umeek 75 euro ordaindu beharko dituzte udalekuak, eta herriar eroldatu gabe daudenek 150 euro ordaindu beharko dituzte.

Udalekueetan izena eman gura dutenek, udaletxean, liburutegian eta kiroldegian egin dezakete hori.

## Berrizko udala Saharako haurrekin elkartasunean

"Oporrak Bakean" programa martxan da

**BERRIZ** M.Z. Berrizko Udala, Sahararekin elkartasunean, "Oporrak Bakean" programara batu da. Uda honetan, beharra duten haurrei etxe eta familia bana emateko asmoz bultzatu dute ekimen hau.

Haurren beharrak ikusita, eta familia "gutxiagok" izena ematen dutela jakinda, ekimen hauei indarra ematea "beharrak" dela diote.

Gainera, jakitera eman dute, bi hilabetetarako etorriko diren haurren bidaiaren kostua udalak ordaintzen duela, eta mediku azterketak Osakidetzak egiten dizkietela.

Udalak berriztarrei dei egin die haurrei laguntzeko. Beraz, interesatuta daudenek apirilaren 25a baino lehen eman beharko dute izena: 946 824 525 deituta edo gizarte2@berriz.org helbidera mezua bidalita.

**hitz** #gomendioak

artekalea 14, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT  
KAMARADAK  
Joxe Iriarte "Bikila" (2016)

UME ETA GAZTEENTZAT  
NIRE MAITEA  
Astrid Desbordes & Pauline Martin (2015)

MUSIKA  
ANDRAZKUBAK  
D'Capricho (2015)

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

# Herri ortuak eta udaletxeko igogailua dira aurrekontuetako inbertsio nagusiak

Diru sarreretan aurreikusitako beherakadak aurtengo inbertsioak mugatu ditu



Joan zen asteko udalbatzarraren argazkia.

**ATXONDO** J. Derteano  
2016ko udal aurrekontuak Gobernu Taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin onartu zituzten atzoko udalbatzarrean. EAJ absenteitu egin zen. Diru sarreretan beherakadak baldintzatutako aurrekontuak dira. 1.668.000 eurotan parekatu dituzte sarrera-irteerak, iaz baino %8,48

gutxiago. Oro har, diru sarrera mota denetan, iaz baino gutxiago batzea aurreikusten dute, baina, batez ere, Aldundiko Udalkutxatik jasotzen duten kopuruan emango da beherakada nagusia: guztira, 904.000 euro jasoko dituzte, iaz baino %8 gutxiago. Kontuan hartu behar da udaleko aurrekontu osoaren

erdia baino gehiago Udalkutxako zenbatekoak osatzen duela: “Udalkutxako gorabeherak eragin zuzena dute aurrekontuetan”, azaldu zuen Dabid Cobos alkateak, udalbatzarrean.

Horiek horrela, inbertsioetan “ezingo dugu egin gura genukeen guztia”. Zatirik handiena udaletxean igogailua egiteko

erabiliko dute: 98.086 euro. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza —36.000 euro— aprobetxatzeko, aurtengoa egin behar dute inbertsioa. Beste 40.000 euro herri ortuetarako lurzati berriak erosteko eta, ondoren, bertan azpiegiturak egokitzeko erabiliko dituzte. 30.000 euro herriko argiteria berritzatzeko gordeko dituzte.

Diru sarreretatik 150.000 euro inguru zorrak kitatzen jarraitzeko erabiliko ditu udalak. 2013an, 900.000 eurotik gorako zorra zuten, eta, urte honen amaieran, 473.000 izatea aurreikusten dute. Beraz, azken lau urteetan, ia erdira jaitsiko dute udalaren zorra.

EAJko Gorka Garatek absentsiorako arrazoiak eman zituen. Batetik, “igerilekuen kudeaketa osoa lehiaketara atera beharko litzatekeela uste dugu”. Herriko espaloi eta inguruen mantenurako diru atal baten beharra ere ikusten du. Herri ortuen inguruan, aldiz, dudak ditu: “Ez dakigu benetako eskaririk badagoen ala ez”.

## Ur depositoak konponduko ditu udalak

**GARAI** M. O.

Ur depositoak konpontzeari lehentasuna emango dio udalak aurtengoa. Horrela, egitasmo hori izango da aurrekontuko diru partidarik handienetakoa hartuko duena: 50.000 euro. Udal ordezkariak azaldu duteenez, San Migeleko eta Trumoitteko depositoak konponduko dituzte.

Kurutzondotik San Migel elizara doan ur hodia ere berritzeko beharrezana ikusi du korporazioak

Bestalde, Kurutzondotik San Migel elizara doan ur hodia ere berritzeko beharrezana ikusi du korporazioak. Obra hori ere 2016an garatu gura dute, baina finantziarioa soberakina erabilia lortuko dute. Beraz, urteak aurrera egin ahala, aurrekontuan aldaketa bat egingo dute.

Udalbatzak orain aste bi onartu zuen aurrekontua, eta ur azpiegiturez aparte, irisgarritasuna ere badu lehentasun.

## Sexualitate ereduez hausnartzeko zita, prest

Lau berbaldi eskainiko dituzte Emakume Eskolan

**ELORRIO** Markel Onaindia  
Elorrioko Udalak antolatzen duen Emakume Eskolak egitarau berria dakar hurrengo asteetarako. Lau berbaldi jasotzen dituen ikastaroa da, eta askotariko sexualitate ereduak aztertzekeko balioko du. Hain zuzen ere, sexualitateak ulertzeko modu, praktika, diskurtso edota ikuspuntu kritikoak landuko dituzte parte-hartzaileek.

### Lehena, hilaren 18an

Lehenengo saioa apirilaren 18an burutuko da, 18:00etatik 20:00etara, psikologian doktore den Eider Goibururen eskutik. Sexu hezitzailea, berdintasun teknikaria, Lahaia-Nahia elkarreko kidea eta AbadiñoSex zerbitzuko arduraduna ere bada Goiburua.

Bigarren berbaldia Irantzu Varela kazetariak eskainiko du, hilaren 26an, “maitasun erromantikoa desmuntatze-

ko” asmoz. Maiatzaren 3an, sexu-genero metamorfosiak artearen ikuspuntutik landuko ditu Ainhoa Guemesek. Zikloa amaitzeko, Inmaculada Mujika lesbofobiaren inguruan arituko da, maiatzaren 10ean.

Sexualitateak ulertzeko modu, praktika, diskurtso edota ikuspuntu kritikoak landuko dituzte

### Inskripzioa, 5 eurotan

Emakume Eskolako ikastaro berriaren izena eman gura dutenek hilaren 13a dute azken eguna; udaletxean, Herritarren Arreta Zerbitzuan, [www.elorrio.net](http://www.elorrio.net) webgunean edota [genero.teknikaria@elorrio.net](mailto:genero.teknikaria@elorrio.net) helbidean eman daiteke izena, eta bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu.

## Maiatzaren 20ra arte aurkeztu daitezke lanak kartel lehiaketara

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban  
Udalak 2016ko Zaldibarko jaiak iragartzeko erabiliko duen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Maiatzaren 20ra arteko epea egongo da parte hartu gura dutenek euren lanak udaletxean aurkezteko.

Hiru sari emango dituzte lehiaketan. Jai batzordeko kideek osaturiko epaimahaiak irabazle hautatzen duen kartelaren egileak 250 euroko saria jasoko du, eta 150 eurokoa bigarrenak. Euren lanak aurkezten dituzten 14 urtetik beherakoen artean, bestalde, diru-saria barik, 100 euroko balioa daukan sari berezi bat banatuko dute.

Parte-hartzaileek maiatzaren 20ra arte bidali ahal izango dituzte euren lanak. Gero, zazpi eguneko tartea izango du epaimahaiak erabakia jakitera emateko: maiatzaren 27an emango dute jakitera zeintzuk izan diren 2016ko jaietako kartel lehiaketako irabazleak.

## Libre dinamika aurkeztuko dute plazan, domekan

Epaiketaren zain dauden sei otxandiarrei babesa eskainiko dien Libre dinamika aurkeztuko dute

**OTXANDIO** J. Derteano  
Sei otxandiar beraien kontrako epaiketa noiz hasiko zain daude. Eurekin “itzelezko injustizia” egiten ari dela uste dute Otxandixo Libre dinamika osatzen duten kideek. Herriartalde baten osatzen du, eta “auziperatupei zein euren lagun eta senideei beharrezkoa den laguntza eta elkartasuna” emateko prest daude. Libre dinamikaren aurkezpena domeka honetan, 13:30ean izango da, Otxandioko plazan egingo duten agerraldian.

Sei otxandiarrak hiru prozesu judizial ezberdinetan banatuta daude. Egoitz Garmendia 2010eko irailean atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta “tortura basatiak” jaso zituen Libre mugimenduko esanetan. Urte biko kartzelaldiaren ostean, fidantzapean aske geratu zen. Maiatzaren 17an epaituko dute,

Audientzia Nazionalean. Bederatzi urteko kartzela zigorra eta hamar urteko inhabilitazioa eskatzen ditu fiskalak.

Aitor Uribe, Amaiur Lopez de la Calle, Asier Duran eta Mirren Soloeta iazko irailean atxilotu zituzten, Luzia Urigoitiaren inguruko omenaldia antolatzearen. Fiskaltzak urte bi eta erdiko kartzelaldia eta bederatzi urteko inhabilitazioa eskatzen du. Epaiketaren zain daude.

Azkenik, Egoitz Lopez de la Calle 2014ko urtarrilean atxilotu zuen Guardia Zibilak. 20.000 euroko fidantza ordainduta aske geratu zen, 2015eko martxoan. Epaiketaren zain dago.

Libre dinamikakoek etxez etxe banatutako informazio orriari salatzen dutenez, “proiektu politiko baten parte izan eta lan soziala egitearen atxilotu, torturatu eta espetxeratuak izan dira”.



# 28 etxe eraikiko dituzte Mañariko autobus geltokiaren inguruan

Udalaren eta enpresaren arteko akordioari esker, hiru etxe tasatuak izango dira



Autobus geltokiaren inguruan eraikiko dituzte etxeak. Gutxienez, urtebete itxaron beharko dute lanek.

**MAÑARIA** Markel Onaindia Mañaritan etxe berriak egiten hasiko dira hemendik urtebetera, gutxi gorabehera. Durangorantzako norabidean dagoen autobus geltokiaren atzeko lurretan, 28 etxe eraikiko dituzte, eta horietatik hiru tasatuak izango dira. Urteak atzera datoren egitasmoa da, eta aldaketa batzuei esker gauzatuko dena.

Udala enpresa eraikitzaileagaz akordiora heldu da, Endika Jaio alkateak azaldu duenez. Etxebizitzaren proiektu hori hiri-

gintza arauen arabera diseinatu zen, eta horregatik, 14 etxe altxatzea aurreikusita zegoen. Baina enpresak proposamen berri bat egin dio udalari: metro karratu berdinaraberrak, 28

Arauen arabera diseinatu zen, eta horregatik, 14 etxe altxatzea aurreikusita zegoen

etxe sortzea. Ordainetan, hiru etxe tasatuak izatea lortu dute.

## Plan berezia

Horrela, hirigintza arauak kontuan hartuta, etxeen eraikuntzarako plan berezi bat onartu zuten azkeneko udalbatzarrean.

Argolabe enpresak egingo ditu etxeak, eta azaldu duteenez, oraindik Aldundiko tramiteak ere beharko dituzte, besteak beste. Horregatik, beste urtebetez, gutxienez, ez dira lanekin hasiko.

## Termiten kalteak konpontzeko lanak amaituta udal eraikinean

**IZURTZA** J.D.

Dagoeneko amaitu dituzte udaletxea dagoen eraikinean termiten eragindako kalteak konpontzeko lanak. Lehenengo, tabernan burutu zituzten konponketa lanak; ondoren, eraikin berean dauden bi etxebizitzetako batean jardun zuten langileek, eta, oraintsu, bigarren bizilekuko lanak amaitu dituzte. Beraz, kaltetutako ha-beak eraberritzeko tratamendu osoa amaituta dago dagoeneko.

Datozen bost urteetan, lanak egin dituen enpresak eraikinaren kontrola eramango du. Egituran zehar, termitak erakartzeko habiak jarri, eta urtean behin aztertu egingo dituzte, erabat desagertu dire-

Datozen bost urteetan kontrolak egingo dituzte termitak erabat desagertu direla segurtatzeko

la segurtatzeko. Lan hauekin termiten arazoa erabat konpontzea itxaroten du udalak. Orain 15 bat urte ere termiten kalteak eragin zituzten egituraren, baina orduan emandako tratamendua ez zen espero zuten bezain eraginkorra izan.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**IDOIA AGORRIA**  
PSE-EE



## Kontziliazioa

Emakumeak hartzen du bere gain kontziliazioa; horixe da kontua. Emakumeak nozitzen duen egiturazko zuzentasun ezaren ondorioa da hori, Euskadin lanik ezegonkorrenak hartzen eta gizonek baino %25 gutxiago kobratzen jarraitzen baitu emakumeak.

Desberdintasun horren arrazoiak landuko dituzten politikak behar ditugu, desberdintasun horrek bultzatzen baititu gizonak aitatasun-baimenak ez hartzerantz, eta emakumeak menpeko pertsonen zaintza gehiena beren gain hartzerantz. Neurri bereziak behar ditugu guraso bakarrek familientzat, gehienbat emakumeak baitira familia horien buru.

Euskadin guraso bakarrek 80.000 etxe daude. Gehienetan, 65.000 etxetan gutxi gorabehera, emakume bat arduratzen da, bera bakarrik, seme-alabak zaintzeaz. Nola baliatuko dira pertsona horiek benetako kontziliazioaz? Ondorio gisa, haurren adopzioa eta jaiotzeko baimenak parekatu behar ditugu, eta lanean aritu behar dugu kontziliazioa eskubide subjektiboa izan dadin. Ondo bermatu behar dugu gure familien ardurak hartu ahal izatea, horrek inolako zigorrik ekarri gabe -bereziki emakumeoi- lan-bizitzan edo ibilbide profesionalean. Generoko jarrerak aldatu, eta hain sexista ez den eredu bat behar dugu, eta, horretarako, berdintasunean oinarrituago dauden jokabideak sustatu behar ditugu, hala etxean nola bikotekideen artean. Kontziliazioa benetako aukera izan dadin, familia-molde berrietan, bakoitzak duen askatasunaren emaitza. Azken batean, osoko kontziliazioa izateko, emakumeak eta guraso bakarrek familiak baztertu gabe.

## DURANGALDEA ASTEON

### Merkataritzaren alde busteko kanpaina

**DURANGALDEA** > Dendak Bai elkarteak Durangaldeko merkataritzaren alde busteko deialdia egin du bere kanpaina berrian. Erosketetan 30 euro gastatzen dituzten herritarrei aterki bana erregalatuako diete apirilean zehar. Ekimenak Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza dauka.

### Angel Aldana iheslaria hil da, Venezuelan

**ZORNOTZA** > Apirilaren 3an hil zen 1949an Gorozikan jaio eta Zornotzan bizi izan zen Angel Aldana Barrena. Venezuelan hil zen, urte askoan hainbat herrialdetan deportaturik eman ostean. "Ia 40 urte etxetik kanpo egin behar izan eta gero, gaixotasun larri batek jota hil zen", haren senideek jakinarazi dutenez.

### Bost berbaldi, Bizidun elkartearen eskutik

**DURANGO** > Bizidun nagusien elkarteak askotariko gaien inguruko bost hitzaldiko zikloa prestatu du apirilerako. Genero biolentziaren inguruan jardun dira asteon, eta artea izango dute, apirilaren 13an, 18:00etan, berbagai. Durangoko Museoa izango da Velázquez margolariaren lanaren inguruko berbaldia.

## IRITZIA

### Konplimendu hutsak baino gehiago

Beharbada, 28 urteren ondoren, iurretarrak gurekin gogaituta izango dira. Iurretako Udalak urtero-urtero Emakumeen Bira egiteko horrenbeste diru ematea ondo ikusten ez duen jendea ere egongo da.

Beste jende askok zaplatatxo lepoan eman eta itzelezko meritua dugula esaten digute, horrelako ekintza bat antolatzea handia baita. Baina ordua iristen denean, tristurak hartzen gaitu ikusten dugunean betiko lagunak direla irteera eta helmuga inguruan lasterketako protagonistak ikustera hurreratzen direnak.

Penagarria da guretzat ikustea gure herria dela lasterketaren inguruan zale eta ikuslerik batzen ez duen bakarra. Pena hartzen dugu ikustean herritarrei berdin diela zerbait garrantzitsua izatea zein ez izatea, euren etxean bertan; esker txarrekoak direla uste dugu.

Behin baino gehiagotan komentatu dugu lankideon artean Iurretako herriak ez duela merezi eskaintzen dioguna. Jakina, eskatu ere ez dute egin, eta, seguruenik, oztoporik baino ez dugu sortuko, ordu batzuetan, kaleak mozten ditugulako eta autoekin garajeetara sartu ezinik ibiltzen direlako.

Beste alde batetik, badaude harro sentitzen direnak Emakumeen Bira emakume txirrindularien munduko lasterketarik hoberenarikoa izateagatik. Nahi nuke konplimendu hutsa besterik ez izatea, eta hurreratu daitezten lanera. Horixe baita gura duguna, laguntasuna eskaintzen datorren jendea, hain zuzen ere.

Amaitzeko, jakinarazi gura dizuet, azken finean, kosta ahala kosta, guk eutsi egingo diogula. Beraz, inorekin zorrik ez dugunez, kito.

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



**> Berbaz****Itsaso Egia | CEAREko kidea (Errefuxiatuei laguntzeko Batzordea) | Durango, 1983**

Lehiur Elorriaga

## “Horma eraiki da, nekatu eta buelta emango dutelakoan; ez da gertatuko”

CEAREko kideak (Errefuxiatuei laguntzeko Batzordea) errefuxiatuei harrera egiten die Bilbora heltzean

**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
**Gizarte langilea eta gizarte hezitzailea da Itsaso Egia. 2007tik CEAREN dihardu lanean, errefuxiatuei Europan lehenengo pausoak ematen laguntzeko. Gerratik ihesean datorrenari lagundu egin behar zaiola argi dauka, trabak ipini beharrean.**

**Turkiako Ituna indarrean sartu eta siriarrak Turkiara deportatzen hasi dira. Europak bizkarra eman die asiloa emateko betebeharrei?**

Emandako pausoek ez dute laguntzen errefuxiatuak hona heltzeko, ezta asilo eskubidea eskatzeko ere. Trabak baino ez dituzte jartzen, errefuxiatuak han gera daitezten eta bizimoduak topa dezaten. Gerratik ihesean datozenei lagundu egin behar diegu, eta ez trabak jarri.

**Horren legezkotasuna ezbaian jarri dute giza eskubideen aldeko erakundeek. Europak aurpegi latzena erakutsi du?**

Argi dago Europatik ez garela laguntzen ari. Beste aldera begira gaude. Zenbat eutsiko dioten zain gaude. Errefuxiatuak euren herrialdeetara bueltatu daitezten horma eraiki da, nekatu eta buelta emango dutelakoan. Baina, ez da horrelakorik gertatuko. Izan ere, euren herrialde-

tara itzultzea, hiltzera joatea da. Ez dute ihes egin nahi dutelako, besterik barik, edo bizimodu hobea baten bila datozelako, askok uste lez, euren herrialdeetan bizia arriskuan dutelako baino. Derrigortuta daude: ihes egin edo bizia galdu. Laguntzea dagokigu. Zergatik egin duten ihes ikusi beharra dago.

**Gatazkaren jatorria zein den? Gerra hori nola sortu den ikusi behar da, zer dagoen atzean. Herriarrek ezagutzen ez duten funts handiko gatazka politikoa dago. Ikusi gura ez ditugun hainbat interes dago, askotan. Adibidez, kokapen estrategikoa baliabide naturalak ateratzeko. Dirua, azken finean.**

**Siria dugu orain ahotan, baina, mundu osoko errefuxiatuekin egiten duzue lan, ezta?**

Bai, mundu osoko errefuxiatuak ditugu. Siria dugu gogoan,

“*Siria daukagu gogoan, baina, hainbat tokitan daude gatazkak*”

baina, hainbat lekutan daude gatazkak: Latinoamerikan (Kolonbia, Venezuela...), Eritrean, Kongon, Malin. Sahararrak ere hainbat daude, herrialderik ez dute horiek. Pakistan edo Afganistanetik etorritakoak ere bai.

**Hamaika gatazka daude munduan, eta milaka euskal herritarrek ere ezagutu zuten erbestea 36ko gerran. Nola erantzuten dugu herritarrok?**

Hiru urteko mutiko siriarraren irudia, hondartzan hilda, zabaldu eta biharamunean dei piloa jaso genuen laguntza eskaintzeko: arropa, pisuak, umeak etxean hartzeko... herritarrek dena eman zuten laguntzeko. Gainezka egon ginen. Izenak hartu, eta batzarra deitu genuen CEAR zer den eta zertan lagundu zezaketen azaltzeko, besteak beste. Eta, lan horregaz jarraitzen dugu. Oso positiboa izan zen, jende asko etorri zen, eskuzabal, laguntzeko prest. Hala ere, agintariak ere badute beraien erantzukizuna honetan guztian. Eusko Jaurlaritzatik esan ziguten bazirela pisuak eskaintzeko moduan, Alokabideren bidez. Baina, hori guztia oso astiro joan da. Pauso gehiago ematea eskatzen dugu.

**Borondate politikoa falta da?**

Bai. Oso astiro joan doa dena,

arintasuna behar da. Errefuxiatuentzako plaza gehiago ditugu, eta egoera positiboa da. Baina, ia noiz arte irauten duen honek.

**Zenbat pisu dituzue orain?**

Bilbon izan ditugu, eta, orain, Gasteizen ere baditugu. Donostian ere zabaltzekotan dira. Helburua 100 plaza izatea da; orain sei hile 10 baino ez genituen. Askok zabaldu dira, gutxi batzuk falta dira. Baina, badakigu denbora baterako direla, berriro murriztuko direla. Kontua da oso astiro doala dena. Itxaroten gaude. Grezian dauden errefuxiatuentzako birkokapen programagaz, Eritreako hiru lagun heldu dira hona; herrialde askotako errefuxiatuak daude han.

**Zein da zure lana?**

Gizarte langile eta hezitzaile lez harrera egiten diet Bilbora heltzean. Asiloa eskatuko duten ez dakite batzuetan. Eskubide

“*Sirian bost urtean daude gerran, eta Europa ukitu dutenean ohartu gara*”

hori badutela argitzen diegu, batzuek ez dakite-eta. Europan aurreneko pausoak ematen laguntzen diegu.

**Idomeniko kanpamentuan (Grezia) bizitakoa pentsaezina da XXI. mendean?**

Bai. Mugak zabaldu behar dira, bide seguruetatik. Mugak ixteak ez dakar ez pasatzea. Beste bideren bat topatuko dute, mafien bidez edo euren bizia arriskatuz. Jaio zaren tokian jaio arren, ez duzu eskubiderik bizimodu hobea topatzeko? Errurik ez duzun gerra baten aurrean ihes egiteko eta laguntza eskatzeko eskubiderik ez duzu? Guk ere gure gerra izan genuenean, lagundu egin ziguten.

**Memoria historikoa galdu da?**

Baietz uste dut. Beldur gara, eta atentatuen eraginez gaiztotzat hartzen ditugu musulmanak, gure artean ere badela horrelakorik ikusi gabe. Arrazakeria ere ugaritu egin da.

**Errefuxiatuak egon dira, daude eta egongo dira?**

Orain arteko bideari jarraituta, bai. CEAR existitu behar ez izatea dugu helburu. Errefuxiatuak laguntza eske etortzean hasi ginen lanean, eta nahiago genuke gu behar ez izatea. Horrek esan gurako du ez dagoela errefuxiatu munduan. Hala ere, gerrak gero eta gehiago dira: ezagunago zein ezezagunago. Sirian bost urtean daude gerran, eta Europa ikutu dutenean ohartu gara. Baina, siriarrak ez dira zuzenean Europara sartu; Jordaniar errefuxiatu mordoa dago.



## Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Berrizen hasiko da, domekan

Aitor Bizkarra abadiñarra eta Beñat Romero zornotzarra daude saioko bertsolari seikotean

### > BERTSOLARITZA I.E.

Urte birik behin burutzen den Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren aurtengo edizioa aurkeztu zuten astelehenean, Bilbon. Apirilaren 10ean, domeka honetan, Berrizko Kultur Etxean egingo dute txapelketaren lehenengo saioa, 17:30ean.

Iñaki Lersundi, Lander Ibarluzea, Mikel Galartza eta Peru Vidal bertsolariekin batera, Aitor Bizkarra abadiñarrak eta Beñat Romero zornotzarrek ere kantatuko dute Berrizen.

Guztira, 56 bertsolarik parte hartuko dute bederatzi saio osaturiko Bizkaiko Bertsolari

Txapelketaren Udabarriko Fasean. Bederatzi saio horietan, epaimahaiaren puntuaziorik altuena lortzen duten bertsolariak sailkatuko dira urrian hasiko den Udazkeneko Faserako.

Bizkaiko eskualde guztien ordezkari, 56 bertsolarik parte hartuko dute aurtengo txapelketan

Urrian hasiko den bigarren fase horretan, bost kanporaketa eta hiru finalurreko jokatu



Txapelketaren antolatzaile eta babesleak, aurtengo edizioa aurkezteko asteon egin duten prentsaurrekoan.

dituzte, abenduko finalaren aurretik. Udabarriko Fasetik sailkatutako bertsolariei noiz-bait finalista izandakoak batuko zaizkie kanporaketa saioetarako, eta 2014an finalista izandakoek ere parte hartuko dute finalurrekoetan.

Izan ere, 2015ean hausnarke-ta bat burutu ostean, formatu berria izango du Bizkaiko Ber-

tsolari Txapelketak, aurtan. Orain arte, eskualdeka kantatu izan dute bertsolariek txapelketaren lehenengo fasean, baina, aurrerantzean, izena ematen duten parte-hartzaile guztiek kantatuko dute hasieratik elkarregaz. Antolatzaileen ustez, “formatu berri honek hasieratik beste bertsokide batzuekin kantatzea eta beste plaza batzue-

tan aritzeko aukera zabaltzen du”. Bertsolariek “leku, bertsokide eta entzule desberdinekin” aritzeko aukera izango dute.

2016ko Txapelketaren irudia eta mezua ere aurkeztu zituzten prentsaurrekoan: birziklatutako materialagaz egindako txintxaun arrosa bat da irudia, mugimendua iradoki eta jolaserako gonbita egiten duena.

## Francis Díez | Doctor Deseo taldeko abeslaria | Bilbo, 1958



Bizkaiko zubian egin zuten, eguaztenean, Doctor Deseo taldearen disko berriaren aurkezpena.

## “Diskoaren hasierak epika berezia du, makarra samarra”

Plateruenean hasiko du Doctor Deseok, bihar, disko berriaren aurkezpen bira

### > MUSIKA Itsaso Esteban

**Durangoko Plateruenean aurkeztu dituzuen diskoen kontua badaramazu?**

Desastrea naiz horrelako kontuetan, baina hainbat izan direla, seguru. Areto oso ederra da Plateruena; Euskal Herriko ederrenetarikoa. Oso gogoan ditut Durangoko gau politikak.

### Zer duzu akorduan?

Urduritasun eta hunkiberatasun handia gogoratzen ditut, esaterako, edo kamerinoetako kontzertu osteko solasaldiak. Oso momentu berezia izan zen, baita, Platerueneko kontzertu horietako batera Maialen Lujanbio agertu zenekoa. Desioari buruzko bertso bat kantatzera gon-

bidatu genuen. *Bisaren* aurretik bertso itzela eskaini zigun.

### Doctor Deseo ondo konponzen da bertsolariekin, beraz.

Bai, jenialak dira bertsolariak. Doctor Deseoren euskarazko letrak bertsolariek egin izan dituzte, gainera. Disko berrian, Marta Ortiz bertsolari ohiak

egindako letra dauka *Gustatzen zaigulako* kantak.

### Gainontzeko letra guztiak zureak dira?

Bai, baina bikotekide ohia eta lagun handia dut Marta Ortiz, eta disko berrian landu gura genuen gaiaren inguruan berba asko egin dut beragaz.

### ‘Igual y diferente’ diskoaren izenburutik erortzen denez, dikotomia hori da lan honetan jorratu duzuen gaia.

Marcel Proust idazlearen aipu bat izan da abiapuntua: “Benetako aurkikuntza bidaia ez datza paisaia berri eta desberdinak ikustean, baizik, begiratzen ikastea”. Hortik tiraka sortu ditugu disko honetako musika eta hitzak. Ideia nagusia da, bizitzan benetan inportanteak diren gauzak ez direla horrenbeste, eta heldutasunagaz lortu daitekeen dohaina dela horiei ikuspuntu desberdin batetik begiratzen ikastea.

### Begirada horretatik, zer nabarmenduko zenuke disko berrietik?

Diskoaren hasierak epika berezia du, makarra samarra: piano eta biolontxelo doinu hasten da, soka orkestrazio indartsuagaz. Morriconeren musika gogorra ekar dezake hasiera horrek.

### Zer izan duzue inspirazio iturri?

Kasu honetan, Amy Winehousen *Back to Black* kantak, edo Bruno Marsen modukoak produkzioek eragin dute, esaterako, disko honetarako buruan ibili ditugun ideietan.

### Urtebeteko geldialdia egiten duzue kantak sortzeko.

Bai, eszenatokietatik kanpo bizitzeko denbora hartzen dugu, sorkuntza elikatu dezaketen gauzak gertatu daitezten. Izan ere, bizitzatik elikatzen da musika. Birak amaitzean, amestu dudun bidaiaren bat egitea gustatzen zait, adibidez, eta bada-go Islandiara egindako bidaia baten eragina disko honetako kanta batean: Europako glaziarrik handiaren ibilaldia egitera joan ginen, eta ekaitz bortiz baten eraginez, oso egoera zaila bizi izan genuen. Kantan ez dut esperientzia horren narrazioa egin, baina horrelako bizipenek eragina dute sortzen dugunean.

### CDa ezezik, DVD-liburua ere kaleratu duzue.

Aurreko denboraldiko bi kontzertu bereziko irudiak eskainiko dizkiegu DVDan zaleei: Bilbo-ko 2014ko Aste Nagusiko *Noche de fuego y deseo* ikuskizunekoak, eta lagun baten omenaldian, Lekeitioko elizan, eskaini genuen kontzertukoak.



**ANTZERKIA** Itsaso Esteban

Iaz abiatutako bidetik darraite Iurretako Udalak, Kultur Etxeak eta Anderebide Elkartek, “uda-ko Kalez Kale antzerki jaialdia- ren aurreko hiru hilabeteetan, areto barrurako obren programazioa eskainiz”. Apirilean, maiatzean eta ekainean, bina antzerki emanaldi izango dira Ibarretxe kultur etxean, umeentzako bata eta helduentzako bestea.

Ibarretxe kultur etxe barruan izango diren sei antzerki emanaldik osatzen dute Kultur Etxeko arduradunek Anderebide Elkartekoekin batera pentsatu duten egitaraua. Azaldu dutenez, iaz antolatutako lehenengo udaberriko antzerki ziklo hau, eta “herritarrek emandako erantzun onak” bultzatuta antolatutako bigarrena. Umorea dute egitarauko sei obrek ardatz, eta doako sarrera izango dute emanaldi guztiek.

Apirilaren 8an, 19:00etan, izango da lehenengo hitzordua:

## Sei antzerki obra eskainiko dituzte, datozen hiru hileetan, Ibarretxen

Udaberriko antzerki egitaraua aurkeztu dute, asteon, Iurretako kultur etxean



Iurretako alkateak, Anderebide elkarteko ordezkariak eta kultur teknikariak aurkeztu zuten egitaraua.

*La boda de Betty Blue* antzezlan eskainiko du Glu Glu taldeak. Talde horrena izango da apirileko umeentzako emanaldia ere: *Arratoitxo pinpirina* antzeztuko

dute, apirilaren 22an, 17:00etan. Maiatzaren 6an eta 13an, bestalde, Alazne Etxebarriaren eta Sol Magunaren bakarrizketak eta *Ganbaran* umeentzako antzez-

lana izango dira, Iurretako kultur etxean, gozagai. Ekainean, berriz, Jose Cruz Gurrutxagak *Umorea* obra eskainiko du, eta *Txanogorritxo* Glu Gluk.

**GEURE DURANGALDEA****FERNAN RUIZ**

Berbaroko kidea

**Arrakalak**

Gazteago zenean, geuretik alde egin eta beste eskualde batean errefuxiatu zen. Gorputz meharra du. Umetan, uda partean, arrastiko bero zaparen ostean, sarri ibiltzen ginen auzoko landetan elkarrekin amaraunak topatu eta armiarma hanka luzeei begira euli, matxinsalto edo antzekoak zelan hartzen zituzten preso. Hezur gabekoen hura hil ala biziko borroka zen amaraunean itsatsita ez gelditzeko. Bildu, ziztada eman eta bertan momifikatzen ziren barrunbeto isuriak hustuta. Txantxetan esan diot momia haien antza duela. Barre egin du. Gure mundu txikian gertatzen ari direnei erreparoa emateko asmotan hasi naiz berbetan. Berera eroan nau. Aitortu dit kartzelan egon zenean baino presoago sentitzen dela orain; zeruertzik ez, eta haren lekuan hormigoizko harresi sendoa ikusten duela txarrantxen ugerrak uzten dituen orbainez beterik. Arrakalak leherkariz baino ezin egin dakizkiokeen horietakoa da hormatzarra. Eztanda eraginez suntsitu nahi luke, zartatu; eta barrena lehergaiz beterik baduen arren, negar anpulek matrailetan behera utzitako hondar hezeak indargabetu egiten du haren ahala.

Maitatuago, askeago, kementsuago sentitzen zen han barruan, izan ere, bazuen atsekabeak norekin konpartitu. Kanpoaldeko sarean itsatsita gelditu zenetik, oster, iraganeko orbainak inoiz baino nabarmenago ageri zaizkio. Ikusle hutsak baino ez ditu sumatzen inguruan. Erantzukizun handiegia da berarentzat familia, lana eta enparauk dakarkiotena, eta horiei buruz aritu gara autobusera igo duen arte.

## Durango heretikoei buruzko liburu berria

Ander Berrojalbiz durangarrak idatzi du lana

**> HISTORIA** I.E.

Ander Berrojalbiz (Durango, 1983) musikari durangarrak *Los herejes de Amboto* izenburuko liburu idatzi du, eta atzo aurkeztu zuten, Bilbon. Pamiela argitaletxeagaz eman du argitara, Durango Arte eta Historia Museoaren babesagaz. Hain zuzen ere, Durango Museoan inauguratuko dute, gaur, 19:00etan, liburu dokumentazioagaz osaturiko erakusketa. Maiatzaren 31ra arte egongo da erakusketa hori zabalik.

1500. urtean zentratu du Berrojalbizek liburuaren argitalpena ekarri duen azterketa, egilearen azalpenaren arabera, “Inkiszioak Durango 40 lagun baino gehiago epaitu” eta “horietatik hamar emakume eta

gizon bat sutan erail zituzten” urtean. Berrojalbizek aipatzen duenez, XVI. mendeko transkripzio baten arabera, luterano izatea egotzita errepresaliatu zituen Inkiszioak.



ANDER BERROJALBIZ

XVI. mendeko dokumentu hori plazaratu du Berrojalbizek, eta bere “benetako esangura” mahaigaineratu. Akusazio hori sasoi hartan anakronismoa litzatekeela uste du egileak: “luteranismoaren has-tapenak 1516. urtekoak baitira”.

## Literaturari buruzko hiru berbaldi, Durangon

Atzo hasi zen Artearen Ezagupidea hitzaldi zikloa

**> LITERATURA** I.E.

*Muturreko egoeretako literatura* izenburuko berbaldi zikloa hartuko du Durango Arte eta Historia Museoak, apirileko hiru eguenetan. Atzo hasi zen zikloa: Katixa Agirre idazleak eskaini zuen, atzo, Artearen Ezagupidea hitzaldi zikloen hamahirugarren edizioko lehenengo berbaldia. *Zergatik idatzi zuen Anne Frankek eguneroko bat?* galderari erantzun zion Agirrek Durango Museoeko saioan.

Muturreko egoeretan idatzitako literatura izango da, aurten, berbaldi zikloaren ardatza

Apirilaren 14an, Javier Mina idazle nafarra izango da Durango berbaldia eskaintzera gonbidatuko dutena. *Literatura y malditismo* izenburuko hitzaldia eskainiko du Minak.

Jaime Azpiunza EHUko filosofia irakaslea izango da Artearen Ezagupidearen aurtengo zikloa itxiko duen hizlaria. *Imre Kertész o la lengua exiliada* berbaldia eskainiko du Azpiunzak. Kontzentrazio-esparru nazien lekuko eta kronista, eta literaturan Nobel sariduna izan zen Kertész, eta duela urte batzuk hura elkarrizketatu zuen Durango berbaldia eskainiko duen Azpiunzak.

Durango Arte eta Historia Museoan izango dira hitzordu guztiak, 19:00etan.

**Arren ganbara eta emeen sotoa**  
Atx Teatroa

Apirilaren 9an, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEAK

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia www.plateruena.eus  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK

APIRILAK 9 22:00etan DOCTOR DESEO KONZERTUA

APIRILAK 15 19:30ean AIKO ERROMERIA DANTZA

APIRILAK 16 22:30ean IZAKI GARDENAK + LARRY BIRD KONZERTUA





Iaz baino hamar talde gehiagok parte hartuko dute aurten. Maialen Zuazubiskar

## Hasi dadila benetako ikuskizuna

Polemika eta ika-mikak alboratu, eta Emakumeen Birako interesgunea munduko txirrindularirik onenen lanean zentratuko da eguaztenetik aurrera

**> TXIRRINDULARITZA** M.Z. / J.D. Emakumeen Birak zeresan handia eman du aurten. Bira WWT nazioarteko egutegi prestigioetik kanpora utzi izanak piztu zuen lehenengo polemika. UCIk telebistan oihartzun handiagoa bermatzeko eskatuta, Bira-Jaurlaritza-EITB hirukoia negoziazioan murgildu zen. Bigarren ika-mika Birako liburukako irudiak eragin zuen: sexista zen ala ez, alde guztietako iritziak entzun ziren. ‘Hitz egin dezatela nitaz, txarto bada ere’ dioen esaerak badauka, antza, egitiaz zati bat, Birako aurkezpen ekitaldian sumatu zenez. Joan zen barikuan, inoiz baino hedabide gehiago bildu zen Iurretara. Eta ikusminaren aparra oraindino gorenean dagoela, benetako ikuskizunaren sasoa heldu da: eguaztenetik aurrera, munduko txirrindularirik onenek hartuko dute protagonismo osoa.

Joko Olinpikoetarako puntuak emango dituen lasterketak inoizko parte-hartzerik zabalena izango du, aurten. Iaz baino 10 talde gehiago egongo dira, 23 gutzira. Agustin Ruiz Larringan antolatzaileetako baten esanetan,

data aldaketak —ia bi hilabete aurreratzeak— eragin “positibo” izan du parte-hartzean.

**Munduko txapelduna Biran** Lizzie Armitstead gaur egungo munduko txapelduna da Bira irabazteko hautagai nagusienera. Boels Dolmans-ek, oro har, talde indartsua ekarriko du Birara. Munduko txapeldunaz gainera, orduko errekorra ezarri berri duen Evelyn Stevens ere badator. Emma Johansson suediarra da gertutik jarraitu beharreko beste izen bat. 2013ko irabazleak Euskal Herriagaz lotura berezia —Bizkaia-Durango taldeagaz debutatu zuen profesionaletan— izan du beti, eta denboraldi honen amaieran txirrindularitza utziko duenez, pentsatzekoa da aho zapore ona utzi gurako duela bere azken Biran. Durangaldeak talde bi —BZK eta Bizkaia-Durango— eta txirrindulari bi —Ziortza Isasi elorriarra eta Olatz Agorria zornotzarra— izango ditu aurtengo aldian.

**Iurretan erlojupekoa** 2015ean bezala, erlojupeko batekin hasiko dute aurtengo Bira.

Iaz harrera ona izan zuen, eta aurten, errepikatzea erabaki dute Emakumeen Bira ZKE-eko antolatzaileek. Eguaztenean, 17:00etatik aurrera, Iurretako udaletxe parean hasi eta Askondo kalean amaituko da 3,3 kilometroko atariko.

Egueneko lehenengo etapa Eskoriatzan hasi eta amaituko da. 76 kilometroko ibilbidean hirugarren mailako Untzilla eta bigarren mailako Leintz-Gatzaga mendateak igoko dituzte.

Bigarren etapak, Nafarroan, Etxarri-Aranatzen izango du irteera eta, 109,5 kilometroren ostean, Urkiolako Santutegian amaituko da, Otxandio aldetik sartuta. Amaiera 18:10 ingururako aurreikusita dago.

Hirugarren etapa, Berriatzen hasi eta amaituko dena, aurtengo gorbeheratsuen izango da, eta hiru bider igaroko dira Milloi gainera.

Domekako azken etapa Portugalen —Ballonti etorbidean—, izango da. 75 kilometrotan zehar, sailkapen nagusirako borrokan dabilzanek Las Muñecas eta Saltacaballos-erako igoeretan izango dituzte aurkariari min egiteko azken aukerak.

## Hamaika boluntario antolaketa lanetan

Askotariko lanak musu-truk egiten dituzten herritarrei esker antolatzen da Bira

**> ANTOLAKUNTZA** J.D. Emakumeen Bira hamaika boluntarioren lanari esker antolatzen dute. Lan batzuk ohikoak eta ezagunak dira (bidegurutzeak zaintzea, azpiegiturak muntatzea...) eta beste batzuk, berriz, bitxiak. Kuriosoen multzoan sartzen da Ane Ormaetxea durangarrari hainbatetan egokitu zaion lana: *Chaperón*. Zeregin deserosoa, baina beharrezkoa da doping kontrolak berme denekin egin daitezzen. Helmugaratzen den unetik bertatik, egokitu zaion txirrindulariaren ondoan egon behar du chaperon-ak oneoro, eta ezin du begi bistatik galdu doping-aren kontrola gunera heldu, txirrindulariak dagokion potean txisa egin, eta medikuak jaso arte. Noiz edo noiz, txirrindulariak txisa noiz egingo luza-roan zain egon beharra egokitu zaiola dio Ormaetxeak: “Baina, eura

boluntario horietatik emakumezkoak gutxi direla uste du: “Esperientzia polita da, eta jendea boluntario moduan lan egitera animatu gura dut”.

Juanjo Donairek ere urte asko eman ditu boluntario lanetan. Doping gunearen arduraduna izan da. Lan handia den arren, “gustura eta pozik” egin duen lana dela dio, “Birak merezi du hainbeste”.



ANE ORMAETXEA



PEDRO URTIAGA

Pedro Urriaga abadiñarrak txirrindularien segurtasuna bermatzen daramatza hainbat urte. Bera eta Motobizi elkartearen kideak motorearen aurrera eta atzera ibiltzen dira zaintzarik barik dauden bidegurutzeak zaintzen: “Herrietakoak ondo zainduta egoten dira normalean, baina herritik herrira auzoetarako sarrerak-eta daude, eta arriskutsuak izan daitezke”.

Tropela osorik doanean “ez dago arazorik”, baina lasterketa apurtuta dagoenean, orduan sortzen dira komeriak: “Aurrera eta atzera ibiltzen gara. Irrati bidez komunikatuta gaude, eta koordinazioa inportantea da une horietan”. Horregatik, inportantea da “esperientziadun” jendea izatea: “Txirrindulariek errespetatzen gaituzte, badakite euren segurtasuna zaintzeko gaudela”.



# Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira, EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15 euro

Apirilaren 1etik 17ra prezio berezian.

+34 943 085 051

info@domeinuak.eus



www.domeinuak.eus



# Iurretako erdigunera hurbilduko dute domekako Hiri Proba, giroa indartzeko

Askondon hasi eta amaituko dira lasterketak, eta ibilbidea ere herrigunetik gertu diseinatu dute



Iazko podiuma; Koutar Boulaid, El Hassan Oubaddi eta Ivan Fernandez aurten ere badatoz. Bidezabal

## > KORRIKA J.D.

Domekan, 36. aldia egingo du Iurretako Hiri Probak. Aurtengo aldiari begira, hainbat erabaki hartu dituzte sasoi batean herrigunetan sortzen zen giroa berreskuratzea eta ekitaldiari aupada berri bat emateko. Askondon eta bere inguruan zentratu gura du-

te proba, ahalik eta gehien, herriko aisialdi gune naturala direlako. Horregatik, lasterketak farmazia parean hasi eta amaituko dira —eta ez Maspen— eta inguru hartan, pantaila handi bat jarriko dute proba osoa zuzenean jarraitzeko. Podiuma eta sari banaketak ere gune

horretan egingo dituzte: “Jatorrirra bueltatu, eta sasoi batean probaren eraginez herrigunetan sortzen zen giro hori berreskuratzea da asmoa”, adierazi du Iñaki Totorikaguena alkateak.

Bidezabal da probaren antolatzailea, eta ideia nagusi horri jarraituz, zirkuitua birdiseinatu

egin dute: “Ibilbide erdia baino gehiago herrigunetik izango da”, azpimarratu du Juan Ignacio Hernandez Bidezabaleko presidentek. Horrela, korrikalariak Santa Apoloniatik bueltan datozenean, Masperako joan-etorria egingo dute, eta gasolindegi ondok Bidebarrieta kalera sartuko dira. Batzoki parera heltzean, tunel azpitik pasatu eta Aita San Migel plaza erditik igaroko dira.

Nagusien proba bi egongo dira aukeran, 10 kilometrokoa eta 5ekoa. 12:10ean hasiko dira biak. 11:00etatik aurrera, gazte mailakoak antolatuko dituzte eta izen-ematea egunean bertan egin daiteke.

Urtero legez, goi mailako korrikalariak datoz: Emakumeetan, esaterako, Paula Gonzalez, Jacqueline Martin eta Iraia Garcia, eta gizonetan, Jesus España, Ivan Fernandez eta Daniel Mateo.

## ADITUAREN TXOKOA

**GOTZON GOMEZ**

Errugbia



### Pronostikoetan kale

Sei nazioetako txapelketan Irlanda eta Gales ikusten nituen garaile hasieran. Orain aitortu behar dut kale egin dudala. Ingalaterrak jaso du txapeldunaren garaikurra, berak antolatu zuen mundialean porrota jaso ostean. Gainera, ez da izan edozelako txapelduna, ez horixe. Partidu guztiak irabazi dituzte! Nola alda daiteke talde baten itxura errotik sei hilean?

Eddie Jones australiarrek konfiantza eman dio taldeari, hori argi dago. Beraiek antolatutako Mundialak antsietate itzela sortu zuen ingelesten artean, irabazte- edo gutxienez maila ona ematera behartuta zeuden, eta behar horrek kale egitea eragin zuen. Askotan, burua ez doanean, hankek ere ez dute aurrera egiten, eta hori gertatu zitzaion. Jonesek taldea berritzi du, jakinean bera dela talde arrosaren XVa entrenatzen duen lehen atzerritarra.

Beste aldetik, galestarrak hor egon dira azken momentura arte. Ingalaterraren aurkako partidaren garaipena gertu izan zuten, baina aurtengo egutegia gogorregia izan da beraientzat. Irlandak lesio ugari izan ditu, eta intentsitate honetako txapelketa batean horrek ondorio latzak izaten ditu. Frantziak, aldiz, oraindik noraezean jarraitzen du, jokalaria onekin, baina joko eredu barik.

Eskoziak erakutsitako maila azpimarragarria da. Joko apala eta indar falta izan duen taldeak, badirudi goranzko joera duela. Hurrengo urteetan goiko postuetan egon daiteke. Jokalari gazte, indartsu eta biziak ditu; errugbiak eskertuko luke!

## Gertasportek eta IKT-k Larrakozelaia erabiliko dute

Herriko elkarten artean “erabilpen partekatu eta bateragarria” bermatu gura du araudi berriak

### > ARETO-FUTBOLA A. B. / J.D.

Larrakozelai futbol zelaiaren erabilpen araudiaren hasierako onespina onartu du udalbatzarra, aho batez. Horretarako, aurretik, ondoriorik gabe utzi du udalak Iurretako kirol taldeagaz azken 20 urteotan izan duen azpierrezta kontratua. Herriko elkarten artean “erabilpen partekatu eta bateragarria” bermatu nahi dute Iñaki Totorikaguena alkatearen esanetan. Orain, alegazioen epea

hasiko da. Ostean behin betiko onartun beharko du udalbatzarra. Larrakozelaien erabilpen orokorra jasoko du araudiak. Gero, “talde bakoitzagaz hitzarmena lotuko da, herriko instalazioen erabilpen arrazoiko eta partekatua adostuz”, gaineratu du. “Herrian egoitza duen elkarte orok du erabiltzeko eskubidea”. Beraz, Iurretako elkarteak den heinean, Gertasport-ek erabili ahaliko du futbol zelaia.

## Illart Zuazubiskar Bat Basque Team-era batu da

Pistako txirrindularitzan dihardu abadiñarrak

### > TXIRRINDULARITZA M.Z. / J.D.

Illart Zuazubiskar pistako txirrindularia BAT Basque Team-era batu da. Asteon sinatu du kontratua goi mailako kirolari babesa eskaintzen dien fundazioagaz. Azken urteetan, hainbat Munduko Txapelketa eta Munduko Kopa lehiatu ditu abadiñarrak Espainiako pistako selekzioagaz, eta beka-kontratu hau urte askotako “lan gorraren” emaitza dela adierazi du. Abadiñarraren helburuak orain arte bezala lanean “go-

gor” jarraitzea eta BAT Basque Team-en eta Euskadiren izena munduan zehar zabaltzea izango direla dio.



Illart Zuazubiskar.

## APIRILEKO SARIAK

# Anbotoren lagunak

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
lagunak@anboto.org  
Tel.: 946 816 558

**SAN AGUSTIN. SARRERAK**  
“Zer duzu Amy?” antzezlanerako 2 sarrera. Maiatzak 5, 20:00tan.

**URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA**  
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.

**SALTSAN KATERIN. MENUA**  
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

**SAN AGUSTIN. SARRERAK**  
Umeentzako “Ensueños” ikuskizunerako 2 sarrera. Maiatzak 15, 18:00tan.

**HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa**  
Pedro Iturria Sarasibaren “Euskarari gorazarrea” liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” CDa.

## ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.





Ahalik eta ondoen bukatu nahi du denboraldia talde berdeak. Zornotza S.T.

## Ametx Zornotza, playoffetara sailkatzeko azken txartelaren bila

Xuven garaitzeak eta Clinicas Rinconen porrotak emango liokete sailkapena

**> SASKIBALOA** Paul Bustindui Zailtasun ugari izan ditu Mikel Garitaonandiaren taldeak denboraldi honetan. Aurrendenboraldi bukaeran Moussa Konek izandako belau hausturak, Oscar Raya ordezkioak emandako maila baxuak eta taldean izan diren beste lesioek sailkapenean postu gorenetan sartzea saihestu dute. Arazoei aurre eginda,

baina, eutsi egin diote mailari zornotzarrek, eta, jardunaldi baten faltan, oraindik ere badaukate aukera denboraldi hasieran helburu zuten playoffetara sailkatzeko. Datorren larunbatean, 20:00etan, Xuven Cambados talde galiziarra hartuko du, Larrean. Xuvanek garaipea behar du, ez baitauka bermatuta maila mantentzea.

Partidua irabazteaz gain, Instituto de Fertilidad Clínicas Rinconen porrota ere beharko dute zornotzarrek. Malagako taldeak Marin Ence Peixelago liderraren kantuan jokatu du. Lidertzan dagoen talde galiziarrek ez du ezer jokoan, Urrezko Lehen mailarako igoera bermatuta baitauka. Dena dela, bere zalegoaren aurrean irudi

ona emanda ospatu gurako dute igoera. Clinicas Rinconen garaipeak playoffetarako posturik gabe utziko luke Zornotza, eta beraz, Galiziara begira izango dira Larrean, ordu berean jokatu dira eta partidua biak.

### Ondo bukatzeko asmoz

Playoffetara sailkapena emango liokeen azken txartela lortzeko gogoz dago taldea. “Zapatuko partidua final bat da guretzat, irabaziz gero denboraldia luzaizkeo aukera asko ditugulako. Badakigu oso partidua zaila izango dela, eta funtsezkoa da urduri ez jartzea, beraiek asko dute eta jokoan”, dio Seydou Aboubakar pibotak.

Ez da denboraldi erraza izan talde berdearentzat, Larrean ezin izan dituzte eta dohain guztiak erakutsi. Taldeak denboraldi osoan jaso duen esker ona itzuli gura dietela zaleei adierazi du Aboubacar pibotak: “Larrean irudi ona emanda amaitu gura dugu denboraldia, eta, horretarako, playoffak lortzea sari bikaina izango litzateke”.

Denboraldi zaila izan da, kirolez kanpoko arazoak tarteko, eta ahalik eta amaierarik onena eman gura dio Ametx Zornotzak. “Bolada txarrari amaiera eman, eta playoffetan aurrera egiteko aukera dagoen artean, borrokatzen jarraitu behar dugu”, dio Aboubakarrek.

## Bizkaia-Durango, tropel nagusian pauso berriak emateko “gogoz”

Women World Toureko hainbat lasterketetan parte hartuko du taldeak

**> TXIRRINDULARITZA** P.Bustindui Emakumeen UCI mailako Bizkaia-Durango taldeak “ilusioz” beterik ekingo dio denboraldi berriari, Agurtzane Elorriaga kirol zuzendariaren esanetan. Batetik, aurtengo denboraldirako sortu duten Women World

Tour egutegiko lasterketetan parte hartzeko aukera dute, gonbidapenen bidez. Talderik onenek osatutako tropeleko partaide izango dira: “Guretzat pauso handia da, maila handiko lasterketak direlako eta talde gaztea dugulako, baina gogotsu gaude

ahalik eta lanik onena egiteko”. Egutegi horretako hitzordurik nagusienetakoa emakumeen Italiako Giroa izango dute.

Estatu mailako lasterketetan helmuga berrietara heldu gura dute. Orain urte bi taldeka Espainiako Kopa irabazi ostean, aurtun bakarkako sailkapenerako borrokan egon gura dute Mavi Garciarekin (32 urte, Balear Uharteak). Kim Le Court (20 urte, Maurizio) gazteak ere borroka horretan egoteko maila du, baina seguruenik beste helburu handiago batek eragotzi egingo dio Kopako lasterketa denak lehiatzea: Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetara sailkatzeko puntu gutxi falta zaizkio. Apirilaren 13tik 17ra izango den Emakumeen Biran ere parte hartuko du Bizkaia Durangok.

Bestalde, 23 urtez azpiko Eiser Inforlur taldeak bigarren denboraldia du errepidean. Iaz, txirrindulari eta baliabide gutxiarekin biziraun ostean, aurtun

indarberrituta datoz, zazpi txirrindulari eta baliabide sendoagoekin. Gehienak harrobikoak dira. Beste Alde La Tostadora gazteen taldeak, apurka, txirrindulariak trebatzea du helburu nagusi.

### Durango-Durango Klasikoa

Bestalde, martitzenean Duranguesa elkarteak antolatzen duen Durango-Durango Klasikoa lehiatuko dute. Estatu mailan antolatzen den klasiko bakarra da. Proba 15:00etan hasiko da Ezkurdi plazan eta amaiera 18:00 ingururako aurreikusitako dute.

Aurtun, ibilbidea moldatu egin dute. Ez dituzte Muniketa eta Goiuria igoko. Horien orde, Garai ingurura igoko dira, birritan; lehenengoan Gerediagatik, eta bigarrenean, San Juanetik. Azken horretan, %17ra arteko aldapak daude, eta gaina helmugatik zazpi kilometrorra dago.

Urtero legez goi mailako txirrindulariak datoz. Esaterako, taldekako UCI ranking-ean hamar onenen artean dauden bost talde etorriko dira. Bizkaia-Durangok ere parte hartuko du: “Guretzako urteko hitzordurik inportanteenetakoa da etxeko lasterketa delako”, dio Elorriagak.



Bizkaia-Durango emakumeen txirrindularitza taldea.

### AGENDA

#### > FUTBOLA

##### MAILA GORENA

###### Zaldia - Moraza

· Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian.

##### LEHEN ERREGIONALA

###### Zorrontzako - Ugao

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

##### BIGARREN ERREGIONALA

###### Iurretako B - Zaldia B

· Domekan, 17:00etan, Larrakozelaian.

##### HIRUGARREN ERREGIONALA

###### Durango Bikainak - Arratia B

· Domekan, 11:00etan, Arripausuetan.

###### Elorrio B - Indarra

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

#### > ERRUGBIA

##### HIRUGARREN MAILA

###### Sasikoa Durango - Lagun Onak

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

##### EUSKAL LIGA

###### Elorrioko Buskantza B - Sasikoa Durango

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

###### Mallabia Seguros Altadi - Zalditxo de Araia

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian

##### LEHEN ERREGIONALA

###### Gu Lagunak - Elorri Txiki

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

###### Presion Break B - Urdulizko Antsonekoa

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

##### BIGARREN ERREGIONALA

###### Mallabia B - Racing Tolosto

· Domekan, 16:15ean, Zaldibarko kiroldegian

###### Mendibeltz - Mundakako Katillotxu

· Zapatuan, 15:45ean, Landako kiroldegian

#### > SASKIBALOA

##### ZILARREZKO LIGA

###### Zornotza S.T. - Xuven Cambados

· Zapatuan, 20:00etan, Larrea kiroldegian.

##### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

###### Tabirako Baqué - Unamuno

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

##### BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

###### Zornotza - Loiu

· Domekan, 17:00etan, Ixerbekoan.

##### BIZKAIKO KOPA

###### Zornotza - Sopelana

· Domekan, 19:00etan, Ixerbekoan

#### > PILOTA

##### BIHARKO IZARRAK

###### - Prieto - Mateo / Ugalde - Sarasa

###### - Olano - Otaduy / Zubizarreta - Mariezkurrena

· Apirilaren 14an, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.



## > Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

### ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- ERROTARITXUENA: atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handiak. Etxe osoa kanpora begira. 4 kotxerentzako garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

#### ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- 2 logela, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.

#### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

#### ABADIÑO

- AITA LETONA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Trastelekua eta garajea.
- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

#### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

### LUR SAILAK SALGAI

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

#### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

#### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

#### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

#### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

#### ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserrria. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Mariza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### MATIENA



- 3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita, 2 komun, ganbara eta garajea. Garajera jaisteko igogailua. **205.000€.**

#### UNTZILLAITZ



- DENA HEGOALDERA BEGIRA: Logela 1, egongela, sukaldea jarrita, komuna, balkoia. Ganbara. **170.000€.**

#### ARAMOTZ



- OSO EGOERA ONEAN. GUZTIZ BERRIZTUA: Sukaldea, komuna, leihoak, berogailua, hormak... 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. **135.000€ / Negoziagarria**

#### JUAN DE ICIAR



- Etxebizitza ikuspegi ederrekin, oso eguzkitsua eta dena berriztua. 2 logela, egongela, sukaldea, ganbara eta komuna. Berogailua gas naturalarekin. **110.000€ / Negoziagarria**

#### MATIENA



- Berriztua. 2 logela, egongela, sukaldea guztiz jarrita, komuna. Aparkalekua etxeko atearan ondoan eta 9 m2-ko trastelekua. **99.000€.**

#### ZALDIBAR



- Etxebizitza oso eguzkitsua, berrizteko. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. **81.600€.**

www.inmoduranguesado.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### DURANGO



- 100m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea Zabala. Egongela terrazarekin. Garajea. Eguzkitsua. Solariuma. **256.000€.** (Alokairua, erosteko aukerarekin)

#### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logela. Huetako bat terrazarekin. 2 komun. Egongela eta sukaldea terrazarekin. Ganbara eta garajea. EGUZKITSUA. ETXE OSOA KANPORA BEGIRA. **250.000€.**

#### FCO. IBARRA



- 110m2. 3 logela. 2 komun. Egongela eta sukaldea. Handiak. Ganbara eta Garajea. **246.000€.**

#### IURRETA (K/Maspe)



- 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Eguzkitsua. **111.500€.**

### ETXEBIZITZAK SALGAI

#### SASIKOA



- Etxebizitza altua. Dena berria. 80m2. 3 logela. Komuna. Sukaldea balkoiarekin. Egongela handia. Dena berria, haritzeko arotzeria. Ganbara. Garaje itxia (aukeran). **199.500€**

#### SAN IGNACIO



- 3 logela. 2komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea esekitokiarekin. Ganbara. Garajea. HEGOALDEA. Berriztatua **255.000€.**

ALOKAIUA EROSTEOKU AUKERAREKIN  
LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK  
ALOKAIUAN. KONTSULTATU.  
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:  
Tel.: 946 217 902  
publi@anboto.org



# anboto.iragarki**labur**rak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 14:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarkiaburak.com](http://www.anboto.iragarkiaburak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

SALDU

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! Ia amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garaiea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

**Garai.** Baserrira salgai. Oarbeaskoa, San Migel auzoa, 6. Garai. XVI. mendekoa. Tolare azpiegitura, Igartubeiti baserriaren tankera eta sasoikoa. Ondare legez, Bizkaiko Foru Aldundiaren errehabilitaziorako diru-laguntza du. 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 8.500 m<sup>2</sup>-ko belardi soroa, nahiko laua. 200 m<sup>2</sup>-ko baratza, fruta-arbolak. Nekazaritza turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Errehabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxe, frontoi, kultur etxe, osakidetzaren kontsulta, jatetxe (2) eta autobus geltokitik 150 metrota. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autobidearen sarreratik 5 minutura. Tel.: 639-83 34 89. Posta: [jo.amantegi@gmail.com](mailto:jo.amantegi@gmail.com).

**Mallabia.** Aukerakoa, nekazaritza edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m<sup>2</sup> lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

#### ERRENTAN EMAN

**Zaldibar.** Bikote batentzako aproposa. Estudio bat Zaldibar erdian. Tel.: 664-10 27 91.

#### OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN EMAN

**Oropesa de Mar (Castelló).** Oropesa de Marren (Castelló) apartamentua alogagai ekainean, uztailan, abuztuan eta irailean. Hondartza aurrean. Inguru pribatua aparkalekuarekin, gune berdearekin eta igerilekuarekin. Tel.: 616-09 04 69 // 946-20 32 33.

### Conil de la frontera (Cádiz).

Etxea alogagai Conilen. Logela bi, egongela-sukaldea, guztiz hornitua. 400 m<sup>2</sup>-ko lorategia barbakorekin. Inguru oso lasaia. Lau laguntzako egokia. Hondartzatik bost minutura kotxean. Atsedean hartzeko ezin hobea. Alogagai dago asteka, hamabostaldia... Tel.: 600-59 65 38.

#### GARAJE / TRASTELEKUAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Askatasun Etorbidean garaje plaza bat alokatzen da. Tel.: 628-84 31 18.

### Teknologia

#### GAINERAKOAK

SALDU

**Pertsona nagusientzako igogailua.** Pertsona nagusiek eskailerak igo eta jaisteko igogailua (oruga) saltzen da prezio erdian, beharrezko mantentze azterketa eginda. Tel.: 946-81 37 84.

#### EROSI

**Eskailerak igo eta jaisteko igogailua.** Pertsona nagusi batentzat eskailerak igo eta jaisteko igogailua erosi nahi dut. Fakturarekin bada, askoz hobeto. Mobilizazio tresna gehiago ere erosiko nituzke: garabiak, gurpil-aulkiak, eta abar. Elorrio. Tel.: 690-28 60 71. Posta: [elorrirak@yahoo.es](mailto:elorrirak@yahoo.es).

#### EMAN

**Bidali zure ordenagailua.** Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

### Lana - negozioak

#### LAN ESKARIAK

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durango.** Emakume arduratsua prest dago umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Astegunetan eta asteburuetan, Durangon. Tel.: 618-20 87 96

**Durango.** Laguntzaile pertsonala behar da Durangoko pertsona bati Bilbora trenetaz joaten laguntzeko. Orduka: 8:10 Durangotik-Bilbora eta itzulia 13:30. Kontratuarekin eta alta

emanda gizarte-segurantzaz. Tel.: 690-28 60 71. Posta: [elorrirak@yahoo.es](mailto:elorrirak@yahoo.es).

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-89 96 53.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 722-56 22 41.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua prest dago umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziak. Tel.: 602-85 55 42/722-56 22 41.

**Durangaldea.** Emakumea lan bila umeak eta pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-51 55 61.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 632-50 63 82.

**Durangaldea.** Ekuadorreko neska haur eta pertsona nagusiak zaintzeko prest, etxeko lanak ere egiten ditut. Astegunetan eta larunbatetan. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel.: 665-72 37 24.

**Durangaldea.** Esperientziadun eta geriatrico tituludun neska pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduetegi malgua. Tel.: 618-59 07 44.

**Durangaldea.** Emakumea prest pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Goizez edo gauzez lan egiteko prest. Tel.: 622-95 74 59.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 631-02 02 65.

**Durangaldea.** Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 722-56 22 41.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut, orduka eta

gauetan ere bai. Tel.: 632-16 37 82.

**Durangaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Garbiketan ere aritzen naiz. Esperientzia estilismoan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 612-26 35 60 / 651-00 49 60.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere bai. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 602-34 36 48.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Tel.: 632-70 81 59.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pintore, gidari eta nagusien zainzaile moduan. Tel.: 687-36 20 59/944-07 32 82.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusien zaintzan eta garbiketan. Tel.: 632-16 37 82.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 650-31 97 88.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketan jarduten dut. Tel.: 602-89 01 10.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Igeltseroa, lehen mailako ofiziala, lan bila dabil obretan eta mantenuan. Esperientzia edozein motatako lanetan. Txofer eta mezulari moduan ere jarduteko prest. Tel.: 662-24 56 70.

**Durangaldea.** Psikologo euskaldunak laguntza psikologikoa eskaintzen du. Irakurketa-ulermen arazoak, antsietatea, depresioa. Tel.: 679-38 23 69.

#### LAN ESKAINTZAK

**anboto**  
komunikabideak

**ANBOTO**  
astekariak  
banatzaileak behar  
ditu Zornotzan.

Tel.: 946 816 558  
[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)



**GAURSA**

ibilgailu kontzesionario ofizialak  
**KOTXE SALTZAILEAK**  
behar ditu:

Interesatuak kurrikuluma  
eta argazkia bidali  
"Komentzuala" erreferentziak:  
[rrhh@gaursa.com](mailto:rrhh@gaursa.com)

#### OSTALARITZA

**Durango.** Durangoko taberna batean lan egiteko zerbitzari eta sukaldari bila nabil. Bidali curriculuma helbide honetara: [taberna06@hotmail.com](mailto:taberna06@hotmail.com)

#### GAINERAKOAK

**Durango.** Esperientziadun estetizista behar da. Tel.: 946-81 73 80.

#### GAINERAKOAK

**Abadiño.** Abadiño klase partikularrak ematen dira. Lehen Hezkuntza eta DBH lehen zikloa. Arratsaldean eta larunbat goizetan. Tel.: 634-44 32 12.

#### Denetarik

#### SALDU / EROSI

**Aurtengo belar fardoak saltzen ditugu.** Aurtengo belar fardoak saltzen ditugu. Tel.: 615-73 71 23.

**Web orrialdeak egiten dira.** Web orrialdeak egiten dira. Esperientziaduna. Konfiantza osoarekin. Tel.: 649-31 45 48 / 679-38 23 69.

#### Ibilgailuak

#### FURGONETAK

SALDU

**Mercedes Vito furgoneta salgai.** Mercedes Vito furgoneta salgai. 250.000 km. 12 urte. Tel.: 688-80 61 52.

#### Familia - etxea

#### HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK

SALDU

**City mini kapazurako bi zaku saltzen ditut.** City mini kapazurako bi zaku saltzen ditut. Bikientzat. Biak 40 eurotan. Tel.: 635-00 62 63.



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Apirilaren 15ean, 22:00etan; eta 16an, 20:00etan, Durangoko San Agustín kulturgunean

## 'Zapoi', aretorako

Karrika antzerki taldeak 'Zapoi' kale antzerkiaren areto barrurako moldaketaren estreinaldia egingo du, datorren asteburuan. Durangoko Ezkurdi plazan estreinatuko duen, urrian, 'Zapoi'. Emanaldi bi eskainiko dituzte: bata 15ean, eta bestea 16an. Kultur munduaren egoeraz gogoeta egiten du Durangoko antzerki taldeak obra horretan.

### Antzerkia

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 8an

18:00etan, 'Erpurutxo', Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

APIRILAREN 9an

20:00etan, 'Arren ganbara eta emeen sotoa', San Agustín kulturgunean.

APIRILAREN 15ean

22:00etan, 'Zapoi', San Agustín kulturgunean.

APIRILAREN 16an

20:00etan, 'Zapoi', San Agustín kulturgunean.

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 8an

17:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amaiur', Arriolan.

APIRILAREN 15ean

22:00etan, 'Zergatik Jamil?', Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 8an

21:00etan, 'Trastornos literarios', Zornotza Aretoa.

### Kontalaria

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 9an

19:00etan, Munduko Kontu Kontalariak, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

APIRILAREN 8an

19:00etan, Munduko Kontu Kontalariak, Liburutegian.

#### :: ELORRIO

APIRILAREN 8an

22:00etan, Munduko Kontu Kontalariak, Arriolan.

### Berbaldia

#### :: ABADIÑO

APIRILAREN 14an

20:00etan, 'Kutxabank, el saqueo de Euskal Herria' berbaldia, Gaztetxean.

#### :: ATXONDO

APIRILAREN 10ean

19:00etan, 'Lantegi berreskuratua eta herri boterea Argentinan', Barraskiloren.

#### :: DURANGO

APIRILAREN 10ean

18:00etan, Satur Peña EHUKO irakaslearen 'Velázquez, Las Meninas y sus personajes', Arte eta Historia Museoa.

APIRILAREN 14an

18:30ean, 'Destino incierto. Protección de la niñez en movimiento', Elkartegian.

### Erakusketa

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 29ra arte

Eskarne Zabalen lanak, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

APIRILEAN

Nagore Txintxurretaren 'Nepalgo bizi margoak', Arteka liburu-dendan.

MAIATZAREN 31ra arte

'Anbotoko herejeak', Arte eta Historia Museoa.

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 28ra arte

Stop San Filippo: Herriko ikastetxeetako ikasleek egindako marrazkiak, Zelaietan.

### Musika

#### :: DURANGO

APIRILAREN 9an

22:30ean, Doctor Deseo, Plateruenean.

APIRILAREN 14an

20:00etan, Olinda Durangaldeko taldearen doinu brasildarrak, Plateruenean.

### Zinema

#### :: BERRIZ

APIRILAREN 8an (22:00etan) eta 9an (22:00etan)

Cien años de perdón, Kultur Etxean.

### Ibilaldia

#### :: ZORNOTZA

APIRILAREN 10ean


10:00etatik 14:30era, Ibilaldiak familian: Muskiz-Zierbena (6 km), Gudari kaleko autobus getokitik abiatuta.



Apirilaren 15ean, 22:00etan, Elorrioren

## Zergatik Jamil?

Jokin Oregik eta Patxo Telleriak zuzenduriko antzezlan da 'Zergatik Jamil?'. Eneko Sagardoy durangarrak egiten du magrebiar jotzari Jamilyen papera. Poliziaren arabera, Jamilek hil du Mikel Martinezek antzeztan duen paralisi progresiboak jotako Xabier.



### :: DURANGO | ZUGAZA

#### Kiki. El amor se hace

- barikua 8: 22:00
- zapatua 9: 22:30
- domeka 10: 20:30
- astelehena 11: 21:00

#### El cazador y la reina de hielo

- barikua 7: 19:30/22:00
- zapatua 8: 17:00/19:30/22:30
- domeka 9: 16:30/18:30/21:00
- astelehena 10: 18:30/21:00
- martitzena 11: 20:00

#### Objetivo: Londres

- barikua 8: 19:30/22:00
- zapatua 9: 19:30/22:30
- domeka 10: 19:00/21:00
- astelehena 11: 18:30/21:00
- martitzena 12: 20:00

#### Mi gran boda griega 2

- barikua 8: 19:30
- zapatua 9: 18:30/20:30
- domeka 10: 18:30
- astelehena 11: 18:30
- martitzena 12: 20:00

#### Norman del Norte (euskaraz)

- zapatua 9: 17:00
- domeka 10: 16:30

### :: ELORRIO | ARRIOLA

#### La Habitación

- zapatua 9: 22:00
- domeka 10: 20:00
- astelehena 11: 20:00

#### Kung Fu Panda 3

- domeka 10: 17:00

### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

#### Mi gran boda griega 2

- zapatua 9: 19:30/22:00
- domeka 10: 20:00
- astelehena 11: 20:15

#### Norman del Norte

- domeka 10: 17:00

#### Truman

- eguena 14: 20:15



**> BOTIKAK****BARIKUA, 8** · 09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**ZAPATUA, 9** · 09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-13:30

**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Eguren, Isabel**  
Trañabarren 15 - Abadiño**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Larrañaga-Balentiaga**  
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 10** · 09:00-09:00**Irigoien**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 11** · 09:00-09:00**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 12** · 09:00-09:00**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 13** · 09:00-09:00**Etxebarria**  
Montevideo etorb. 2 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**EGUENA, 14** · 09:00-09:00**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrangoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epeaErmodo, 11  
DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)  
f Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren arteantarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> Apirilaren 9an, Inharrek** 7 urte beteko ditu. **ZORIONAK** etxekoan partez.**> Ipar eta Paul.** Apirilaren 6an eta 9an anaitxo bi hauek urteak betetzen dituzte. Zorionak eta mosu handi bat etxekoan partez!**> Zorionak Rua, Itzi,** Darien, Aitziber, Keith eta Amatxikoren partez. "Portu"-ko ardoa eta urdaiazpikoa nahi ditugu.**> Zorionak, Amane eta Genar,** zuen lehenengo urtebetetzean! Etxeko eta lagun danen partez mosu handi bat!**> Zorionak** Gallastegittarron partez! Asteburuen pote bat zure kontu!**> Zorionak Irati** etxeko guztien partez! Mosu handi bat! Muuuuaaakkk**> - Triiint! Triiint!..** - Bai? - Zorionak zuri, zorionak zuri...**> Kattalin,** ongi etorri familiara! Azkenean, apirilaren 3a aukeratu dozu... Zu bai zu! Mosu potolo bat, hirukote!**MGEP**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Ate irekiak****apirilak 13 (asteazkena) 18:00****maiatzak 21 (larunbata) 11:00****Eskaintza akademikoa**

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Informatika Industriala
- Sareko Informatika Sistemien Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktibitatearen Programazioa
- Mekatronika Industriala

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)

943 71 21 91

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

2016-2017

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)



# “Manikiak gara, baina, norberaren mugak non dauden jakin behar da”

Jatea “plazerrik handiena” duela aitortu du azken urtean modelo lanetan dabilen gazte durangarrak

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Argazki-kameraren aurrean jartzea zailagoa egiten zaio, irakasle lez 20 neska-mutilen aurrean baino. Dudarik gabe. Azken urtean, argazki-saioetan eta pasarela gainean ari da Gorane Gorospe, baina, irakasle jardun gura du.

**Nolatan moda kontuetan?**  
Bilboko denda baten inaugurazioan, agentzia bateko neska bat hurbildu, eta txartel bat eman zidan. Harrituta geratu nintzen. Ez neukan zerikusirik mundu horrekin, eta hainbat buelta eman nizkion buruari. Azkenean, proba egitera animatu nintzen. Aukera bat iruditu zitzaidan, zerbait berria.

**Kasualitatez orduan...**  
Gutziz! Egia esan behar badut, ez dakit ezer modaren inguruan. Ez naiz blogetan sartzekoa, eta gura dudana janzten dut. Ez diot inori jarraitzen; nire “tokea” ematea eta gura dudana janztea gustatzen zait.

**Urtebete daramazu. Nolako izaten ari da esperientzia?**  
Esperientzia ona da. Gustatzen zait. Baina, etorkizunean ez dut neure burua hor ikusten.

**Argiak eta itzalak dituen mundua da hori?**  
Baliteke, bai. Min handia egin diezaioke neska-mutil askori; argalago egon behar hori dela-eta... Kontu horregaz ni ez naiz oso zorrotza, argi dut eta ez naizela horretaz biziko.



Gura dudana jaten dut. Lanen baterako kontuan hartzen ez banaute... hor konpon! Eta zerbaiterako gura banaute, naizen modukoa izanda, ederto!

**Modeloa izatea ez da txikitatik datorkizun kontua, beraz.**  
Ez. Irakaslea izatea gura izan dut beti, eta horretarako prestatzen ari naiz. Zaletasuna ez dut esango, baina dirua irabazteko beste aukera bat da modeloa. Besterik gabe.

**Irudiak berebiziko garrantzia du moda munduan. Horren garrantzitsua da irudia?**  
Ez, baina, tamalez, gazteak horretan daude tematuta. Gero eta gehiago arduratzen dira horretaz (jateari uzten diote, kirola egiteagaz itsututa daude...) Fisikoari garrantzi larregi ematen zaio. Sare sozialetan ere oso nabarmena da. Ezagutzen ditut kasuak, hainbeste argaldu guran, anorexia maila horretara heldu direnak.

**Moda mundutik kanpo ere?**  
Bai. Baina, moda mundutik dator asko. Kontuan hartu behar da ikusten ditugun argazkirik gehienak daudela ukituta. Iru-di faltsua ematen da, baina, askok uste dute benetakoa dela.

**Zein da zure indargunea?**  
Altuera izan daiteke; eta nahiko argal nagoela. Zortea izan dut genetikagaz. Gimnasioa ez zait gustatzen. Kirola lagunekin egiten dut. Frontenisean, adibidez. Ondo sentitzeko egiten dut kirola. Normal-normala naiz. Ez nago itsututa, ez ki-

rolagaz ez janariagaz. Gura izan dudana jan dut beti, eta badakit hori ez dela aldatuko, plazerrik handiena dut eta jatea.

**Zure gorputzeko ezer aldatuko zenuke?**  
Ez. Badago esaldi bat: ‘inperfektuki perfektua zara’. Horrelakoa naiz ni. Pentsatu dut inoiz, tripa txikiagoa, berna meheagoak... banitu. Baina, ez da arduratzen nauen kontua.

**Modelo izateak sakrifizio asko eskatzen ditu?**  
Bai. Zaindu egin behar da.

**Manikiak zarete, ala ez?**  
Bai, bagara, baina, norberaren mugak non dauden jakin behar da. Bakoitzak jakin behar du zein mailataraino izan gura duen bestearen manikia. Nor-tasuna behar da, burua izatea. Muga non den eta noraino heldu gura den jakin behar da.

**Zer egin zaizu zuri zailena?**  
Beste modeloekin hartu-emanetan sumatu dudana halako lehiakortasuna da gustatzen ez zaidana. Zailena? Jendeak pentsa dezakeena, agian. Baina, esperientzia berri bat da, eta dirua irabaziz gero, ederto!

**Zer da zailagoa, argazki-kameraren aurrean ala 20 ikasle-  
ren aurrean jartzea?**  
Kamera aurrean. Umeak asko gustatzen zaizkit, ez dut beldurrik, eta horrek egiten nau benetan zoriontsu. Argazki-kameraren aurrean halako tentsioa sentitzen da: nola aterako naiz, ia argazkilaria pozik dagoen...

## LAUHORTZA

**JASONE  
AGIRRE  
GARITONANDIA**  
Kazetaria



### Hau zeutzako da

Hamabost urtetik gora daruaz baztar honetan kukuke, eta oin diñostezu ez dozule egundo neure idatzirik irakurri. Hau da markie. Euskeriek eiten dotsule traba diñozu, kosta batuera hori aitzie. Ez zara bakarria. Horregaitik nabil geur etzeko erara, euskerie behintzet ez deiten izen atxakixe.

Honixok urte guztiotan hemen botanikuek kontau gureko neuskizukez. Gatxa da, baina. Ahaleginduko naz, dana dala. Pentseizu hau taberna bat izengo balitzeke, neure pintxuek ez litzekezela halako fin, dotore, modernuek izengo. Hemen idatzi izen duazena betiko patata tortillen antzekuek diezela esango neuke. Batzuetan gazbakotxo urten izen jataz, inoz gaitxo be bai, siku, zein esponjosoa... Baina, hori bai, beti kariño handixaz eginikuek izen diez, taberna zaharretakuen antzera.

Anbiziño handi bako tabernarixe izen naz. Gure izen doten bakarria neure bezeruek pintxuok azken hondarreraino jatje izen da. Ez dot inor ezeaz konbenzidu izen gure, ezta ur haundixetan sartzie bez. Gure izen doten gauza bakarria izen da euskeraz irakurteko ohi-turarik ez deukienak neurera ekarri, eta testue amaitu arte hemen egotie; eta ohitura deukienak, ostera, apur bat entretenitzie, edo behintzet, larrei ez aburritzie. Hoixe izen da, beste barik, nire asmu.

Eta geur hemen nau zeuri idazten. Letron irakurle posible guztixen artien, zu zeu bat izetie estimauko neuke gehixen. Mosu haundi bat, bide batez, jakin badakit geur behintzet honaño ailegauko zarena, gaurko hau zeutzako da-ta, ama.

UDABARRIKO FASEA

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

*Bizkaiko bertsozale  
txapelketa 2016*



Antolatzailea



Bobesteak



Loguntzaileak

